



- **Mugikortasuna** Bilborako oinezkoen sarea nahi du Ekologistak Martxan-ek
- **Net Hurbil** Hamar urtean BPG %30 jaitsiko da *Peak Oil*aren eraginez
- **Iñigo Muguruza:** «Ez dakit sortzeari berrekiten diodanean zer aterako zaidan» ● **Ara** Katalanezko egunkari berria
- **Maria Eugenia Silguero** Rostropovich liluratu zuen txelo-jotzailea
- **'Errautsak' antzezlan**a Egin gabeko iraultzen hileta festa

SEASKA

Legeen bidetik joko du
zor zaion diru-laguntza
eskuratzeko



CAMINOS


3D estrategia jolasa



Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€



ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskulna. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2010eko azaroaren 21a, 2.253. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Juan Martinez de Irujo:** «Telebistak ordaintzen du eta, ondorioz, agindu». ARITZ GALARRAGA / 7

Asteko gaia

- **Seaska.** Burua altxa berritan dator estualdia. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Iñigo Muguruza:** «Biktimen elkarteek harresi asko eraiki dituzte». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Twitter.** Denbora galtzea, arrakastaren giltza. GORKA BEREZIARTUA / 15
- **Chavia Ali, Siriako desgaituen elkarteko lehendakaria:** «Oztopo fisikoak gure arazorik txikiena dira». KARLOS ZURUTUZA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Konposturarik galdu gabe, beti ere. BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Gurdiari tiraka.** URTZI URRUTIKOETXEA / 20
- **Txandan** Uberan. IGOR ESTANKONA / 20
- **Udazken beroa.** JAKES BORTAIRU / 21
- **Hiruko txikian** Aitortzak. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Bertso esaldia. AITOR ALBISTUR / 22

Erdiko kaiera

- **Maria Eugenia Silguero:** «Oreka perfektua du txeloak». MIKEL GARCIA / 23
- **XiLaBako finala.** Nor da X? BIXENTE HIRIGARAI / 26
- **Antzerkia:** Belaunaldi baten errautsak. OIER GUILLAN / 29
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34 • **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Oinezko izatea** benetan eskubidea izan dadin. UNAI BREA / 41
- **Ara,** katalanezko egunkari berria. ARITZ GALARRAGA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Pentagonoa prestatzen ari da petroliorik ezarako. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Urradurak.** ANUNTXI ARANA / 50



“Telebistak ordaintzen du eta, ondorioz, agindu”

Juan Martinez de Irujo
Pilotari noblea

Eta ona, kontxo, onena. Galdetu bestela
Olaizolari.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Eduardo Vidarte

Juan...

Aizu, zu ere abizenaren kontura trufaka? Bada, jakin ezazu, nobletzat dut neure burua: aurrez aurre begiratzen dut parez pare dudana.

Ados, hitz egin dezagun pilotaz: hemen iraultzaile bat.

Iraultzailea ez, beti jokatu izan dut horrela. Pentsa, debutaren egunean, hogeita bana markagailuan, boleaz erantzun nion sakeari. Eta, hala ere, irabazi egin genuen.

Hori ba, pilota munduko Ronaldinho!

Arrazoi duzu: nahi baino gutxiagotan ateratzen zaizkit gauzak nahi bezala.

Beste konparazio bat futbolarekin: frontoietara ere iritsi dira forofoak.

Baina pasa gabe: hemen ez da inor ez ezer iraintzen.

Bai, tira. Bigarren kirolik ikusiena omen da telebistan.

Eta lehena? Ez dago gaizki bigarren izatea, baina lehenaren bila joan behar dugu.

Zeren lepotik baina? Nekatzean ere ezin izango duzue deskantsatu.

Telebistak ordaintzen du eta, ondorioz, agindu. Zenbat eta jende gehiagok ikusi, eta publizitate gehiago sartu, hobeto.

Ez dut ulertzen: zer gehiago egin behar duzu Arguiñano irujozale egin dadin?

Arguiñano Olaizolaren jarraitzailea da pilota-

zale handia delako, eta Asegarceko zuzendaritzakoa.

Zera, Zubietak eta Bengoetxeak dutela fama, baina...

Fama eta ondo irabazia. Besteok ez gara hain goapoak, hain erakargarriak, baina pozik gaude daukagunarekin.

Pilotan garrantzitsua da fisikoa, baina baita burua ere. Txapelak janzteko batez ere.

Gora iristeko eskailerarik onena da burua, bai jauna.

Zure izaeraz mintzo dira ugari, baina gogorra behar du takorik gabe jokatzek, ezta?

Gogorra oso. Batzuetan pasa egiten naiz, baina kendu baino gehiago eman dit nire izaerak.

Bestela debekatu, tabakoa legez, haurren ordutegia aitzakia.

Nire kasuan ez luke eraginik izango, fabrikatibakoa naiz hala.

Urrun daude Retegiren hamaikak?

Urrun, urrun. Are oraingo lehiaketa sistema-ekin: lehen finala baino ez zuen jokatzeko txapeldunak. Retegiri ezer kendu gabe, noski.

Ezer kendu nahi gabe, noski, azkena 39rekin irabazi zuen. Adin horrekin zer, kantxan, erretiraturua, euskara ikasten oraindik?

Kantxan nahi nuke, baina ikusiko. Eta euskara ea berriz hartzen dudana. Orain, alabarekin, akaso arrankatuko naiz atzera. ■

Seaska

Burua altxa berritan dator estualdia

Ipar Euskal Herriko ikastolek 40 urteko ibilbidea daukate. Lehenengo 25 urtetan ilegaltzat hartu zituen Frantziako Gobernuak. Seaskaren azkenaldiko filosofia ondokoa da: borroka legalak Iparraldean irabazi, eta gero izango dute eragina Parisen.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Gaizka Iroz

1969AN ABIATU ZEN SEASKA. 25 urtez ilegala izanda gero, 1994an legalizatu zituen Frantziako Gobernuak tokiko hizkuntzetan ari-zen ziren eskolak; hala nola, Seaska, Diwan (bretoieraz), Bressola (katalanez) eta Calandreta (okzitanieraz). Hezkuntza ministroa

hizkuntza gutxituetan hunkitua izateak balio izan zuen lege hori sortzeko, izan ere François Bayrou ministroa okzitandarra zen eta hari esker lortu zuten ikastolek lege babesa. Ikastolek eskola pribatuen kategoria hartu zuten. Urrats handia izan zen, baina



Ziburuko Larzabal kolegioko ikasleak musika saioan.

are handiagoo eman zen 2009ko ekainean. Euskararen Erakunde Publikoak eta Frantziako Hezkunde Ministeritzak akordioa sinatu zuten hiru urteko egitekoak zehazteko. Akordio horretako hitzaurrea da ordea, Seaskarentzat berebizikoa. Lehenengo aldiz eremu juridikoan jaso zen ikastolen bereizgarria. 1994an eskola pribatu gisa ageri dira Seaskako ikastolak, alegia, beste edozein eskola pribatu arrunt gisa. 2009koan berriz, ‘murgiltze’ hitza ageri da, hau da, akordioak jasotzen du ikastolak D ereduaren irakasten duten eskolak direla. Lehen aldiz onartu zitzaion Seaskari euskaraz aritzen zen eskola zela.

Abokatua herriko etxeen diru-laguntzak jasotzeko

2009ko aurrerapausoa ondo gogoan du Seaskak, aldiz, legeak interpretatzeko modu anitz dago eta sarri Gobernuak eta Seaskak ez dute bat egiten interpretazio horietan. Testuinguru horri atxikita Seaskarentzat borrokarako gakoak diren bi gai aipatuko ditugu: eskolen funtzionamendua eta inbertsioak. Ateak adina maratila dituzte biek, ea korapiloak askatzea lortzen dugun.

Funtzionamenduari helduko diogu lehenik. Paxkal Indo Seaskako lehendakariak ezer baino lehen gauza bat utzi digu argi: Seaska legeztatzea ondo dagoela, baina eskola pribatuaren ezaugarriean jartzea eztabaidatzekoa dela, izan ere, Seaskak egiteko publikoa du: euskara salbatzea.

Funtzionamenduaren tripak azaltzeko kontuan izan behar da eskolak nork kudeatzen dituen. Herriko etxeek 12 urtera arteko haurren ardura dute, kolegioak (12-16) Kontseilu Orokorraren menpe daude eta lizeoak (16-18) Akitaniaren esku. Seaska duela gutxi hasia da herriko etxeen atzetik, beraien ustez dagozkien diru-laguntzak jasotzen ez dituz-



JUNKAL AMORES

“Prefetak segiko du poliziarena egiten eta guk pedagogia askorekin esplikatuko diegu auzapezei prefetaren gutuneko letra larria eta letra txikia”

PAXKAL INDO, SEASKAKO LEHENDAKARIA

telako. Adibide batekin esplikatuko dugu ondoen: Baigorri (Nafarroa Beherea) bada eskola publikoa, eskola kristaua edo giristinoa eta ikastola. Haur baigorriar bakoitzak

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak

Paxkal Indo Seaskako lehendakariak argi dio: “Biziki momentu txarrean moztu zaigu Hegoaldeko dirua. Duela hamar urte itoak ginen, Hegoaldeko diruarekin lortu dugu burua ateratzea, eta justu-justu burua ateratzen genuela, eta Frantziako Estatuarekin haien partea bete dezaten negoziatzen hasiko ginelarik, laguntza erori da”. Euskal Autonomia Erkidegoan gobernu aldaketa izan zen 2009an, EAJren tokia PSEk hartu zuen. Bide horretan, dirudienek, arazo teknikoak izan ziren eta akordatzeko Seaskarentzat gordetzen zen dirua xahutua zen. PSEk agindu dio Seaskari 2009rako EAJk

esandako dirua hiru urtetan banatuko duela, urtero 450.000 euro izango dira. Seaskak duen erantzun ofizialaren arabera ez dute diru gehiago jasoko krisiaren erruz. EAJren Gobernuak hamar urtez urtero milioi bat pasatxo euro eman die eta eraikin berriak egin eta konpontzeko ezinbestekoa izan da kopuru hori. Dena dela, Indok, diru gutxi ala asko jaso, esker onak baino ez ditu Hegoaldeko oraingo gobernuarekiko eta aurrekoekiko, ez baitaude derrigortuta diruz laguntzera. Aldiz, zorrotz jokatu dute Frantziako Estatuarekin, hura bai baitago zorretan.

Lizeoa, Seaskaren erakusleiho

Irakaskuntzan, estrategia aldatu nahi du Seaskak. Orain arte 2 urteko haurrengan izan du begirada, txikienak baitira ia osoki Seaskan matrikulatzen direnak. Nekez gerta daiteke 10 urterekin murgiltze ereduan hastea haurra, ohikoena adin horretakoak euskara ez jakitea baita. Irakaskuntzako lehen urteetan begia jarrita, kolegio eta lizeo mailak antolatzerakoan beti sua itzaltzen ibili direla esan digu Paxkal Indok. Bada, orain, 16 urtetik 18 urte bitarteko ikasleen maila horiek indartu nahi dituzte. Haien buruan profesional arloa hastea dago, alegia, zerbitzuen esparruan lan egingo duten ikasleak prestatzea, beti ere euskaraz arituko direnak. Konparazio batera, Euskararen Erakunde Publikoa euskarazko haur eskolak diruz laguntzen hasia da eta langile euskaldunak behar direnez, lanbide horretakoan artean bilatu beste erremediorik ez dute, euskaldunik baldin badago ongi, eta bestela... Seaskak alderantzizko norabidea egin nahi du, haurrekin, zaharrekin, administrazioan... lan egingo duten gazteak prestatu nahi ditu euskaraz. Seaskaren bitrina izan daitezela lizeoko gazteak.

erabaki dezake non ikasi nahi duen eta gero herriko etxeak haur bakoitzeko hainbat diru jarriko du eskola horrek urtean zehar dituen gastuak betetzeko. Eman dezagun gurasoek

nahi dutela haurrak euskaraz D ereduan ikastea, eta eskola publikoak eta kristauak hori bermatzen ez dutenez, ikastolara eraman dutela. Haurrak 6 urte bete ditu eta ezin du Baigorriko ikastolan jarraitu, adin horretatik gorako mailarik ez dagoelako. Beraz, gurasoek Ortzaizera eraman dute umea hango ikastolan jarrai dezan. Seaskaren ustez, haur guztiak berdin tratatu behar dira, eta beraz, eskola batean edo bestean ikasi, herriko etxeak haur bakoitzeko kopuru bera eman beharko luke. Kontua da, adibide honetan, baigorriar haurra Ortzaizera eraman dutela gurasoek eta herriko etxeak haur horri zegokion diru-laguntza ez duela emango. Gainera, gurasoei esango die ez zeudela derrigortuta haurra herritik ateratzera, eskola publikoan tokia baitzuen. Ortzaizeko ikastolara inguruko hamaika herritako haurrak joaten dira. Ehun ume inguru dira eta horietatik hogeitak bertakoak. Donibane Garazikora hamaika-hamabost herritakoak doaz, Maulekoan hogeitak herriko ikasleak daude. Ikasle horientzako egon beharko lukeen dirua ez doa inora. Indok bi arazo ikusten ditu hor: batetik, ikastolak galtzen ateratzen dira nabarmen, azpiegitura ezagatik herrian bertan eskolatu ezin dituzten haurren dirua galtzen dutelako, eta bes-

argia
2011ko egutegia

Salgai dagoeneko!

EGUTEGIA opari 50€

EGUTEGIA 8,50€

BURNIZKO EUSKARRIA 5€

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com



tetik, berdintasunaren kontzeptua ez du betetzen Frantziako Gobernuak; Ortzaze-ko, Donibane Garaziko eta Mauleko ikastolek, esate baterako, beste batzuek baino baliabide dezente gutxiago dituzte, herrikoak ez diren umeentzako diru-laguntzarik jasotzen ez dutelako. Herriko etxeek ordaindu gabe uzten duten diru kopurua bi edo hiru Herri Urratsetan jasotakoa adina da. Diru-galera itzela ikusita erabaki sendoa hartu dute: “Hemendik goiti biziki zorrotzak izango gara, Seaskak lehen aldiz esparru juridikoan lan egingo du, abokatuarekin hasi gara lanean. Bi-hiru urtez oso pedagogikoak izan gara eta aurtengoa erabaki dugu beste maila batera joatea, gure abokatuak izango dira pedagogikoak”. Herriko etxe guztiek ez dute bestaldera begiratzen. BABen adibidez, Biarritzek, Angeluk eta Baionak hitzarmena dute eta horri esker hiru herriko etxeek bertako haur guztien diru-laguntzak ordaintzen dituzte, non ikas-ten ari diren kontuan hartu gabe.

Baionako Etxepare lizeoan gazteak laboratorioran. Datozen urteetan beste lizeo bat eraiki nahi du Seaskak. Hamabi milioi euro kostako litzateke.

Prefetak dio adreilueta-ko dirurik ezet

Aipatu dugu Seaskaren erronka handietako bat, urteroko diru-laguntzak nola atxiki. Bigarren erronkak adreiluekin dauka zerikusia, formalago esanda, inbertsioekin. Eskola pribatuen legeak hala dio, herriko etxeek, Kontseilu Orokorrak eta Akitaniak ezin die inbertsioetarako, eraikin berriak egiteko, dirurik eman eskola pribatuei, edo oso gutxi. Seaska bete-betean harrapatzen du legearen agindu horrek, hain justu, eraikin berriak etengabe egiten ari delako. Ikasle kopurua urtez urte gora doa; esate baterako, aurtengoa 180-200 haur gehiago aterpetu behar izan dituzte. Duela bost urte, Kanboko (Lapurdi) eskola berria ireki zuten 120 ikaslerentzat, pentsatuz nahikoa izango zela, bada, aurtengoa handitu egin behar izan dute 150 haur hartzeko. Ikasle kopuruaren emendatzea espontziala da. Datozen urteetan, hamabi milioi euro kostako den lizeoa eraiki nahi dute, Xalbador kolegioa berritzeko bost-sei milioi euro beharko dituzte eta beti bezala hainbat ikastola berri egingo dituzte. Alabaina, legeak argi dio eskola pribatuei ezin zaie- la dirurik eman eraikinak egiteko. Paxkal Indok honela esan du: “Gobernuak dio lege gehiagorik ez dela behar tokiko hizkuntzak sustatzeko, konstituzioak jasotzen duenarekin aski dela, bada konstituzioa aplikatuz eskola pribatu gisa lagundu beharrean ordain ditzatela ikastolak ondarearen izenean, hizkuntzaren alde lanean ari garelako. Nik apustu hori egingo nuke, baina badakit ez dela pasatuko”.

Gobernuak ez ditu eraikin berriak finantzatzen eta Seaskak perretxikoak bezala altxatzen ditu hormak. Nola moldatu dira gaur arte? Funtsean, Eusko Jaurlaritzari esker eta Herri Urratsetako diruarekin. Hamar urtean eraikin berrietarako hamabost milioi euro behar izan dituzte eta do- doi iritsi dira. Datozen bost urteotan 15-18

D eredua eskola publikoan eta giristinoan?

Eskola publikoan, oraingoz, B eredurako aukera baino ez dago, euskara eta frantsesa erdi eta erdi. Ikasleek ez dute lortzen eredu horretan euskara ondo ikastea. Orain eskola kristauak edo giristinoak (pribatuak) hamabost ama eskolatan D eredua (murgiltze eredua) eskaintzen ari dira. Ikasleak galtzen ari ziren, euskara ikasi nahi zue- nak Seaskara jotzen baitzuen murgiltze ereduaren aritzeko.

Unescoren parametroak segituz gero, Seaskak oraingo erritmoan 60 urte beharko litzuke euskararen

salbazioa segurtatzeko. Indok garbi du, ongi etorria dela eta izango dela D eredua eskola publikoan eta eskola giristinoan, Seaskaren helburua Iparralde- a berreuskalduntzea baita, eta zenbat eta haur gehiago aritu murgiltze ereduaren hobeto. Noski, horrek eskolen arteko lehia ekarriko du. Alabaina, eskola guztiek izan- go lukete murgiltze eredua eta euskara ez bestelako ezaugarriengatik aukeratuko lukete gurasoek eskola bat ala bestea.

Herri Urratsek Hegoaldea behar du

Gero eta gutxiago dira Hegoaldeko herritarrek Senpereko lakuan. Haien ordez frantses gazteak ugaltu dira, jaia merke topatu baitute Herri Urratsen. Paxkal Indok berak dio: “Edaten dute asko eta ez dute giroa hobetzen, baina ez dugu kritikatu behar ‘etorkinak’ etortzen direla, euskaldunok etorri behar dugu, eta horretaz guk jabetu behar dugu. Iparraldea berreuskaldundu nahi bada Senperera etorri behar da eta gazte horiei euskara eskaini”.

Jende ugari eskatu du Herri Urrats tokiz aldatzea. Indoren ustez Senperen



jarraitu beste aukerarik ez dute; Hegoaldeko ikastolekin alderatuta txikiak dira Iparraldekoak –Seaskak guztira 2.700 ikasle ditu– eta ezinezkotzat dute urtero toki berria prestatzea. Gainera, haien helburua ez da turismoa egitea, baizik eta sosak biltzea. Esate baterako, Herri Urrats batean lortutako diruak balio dezake Ziburuko kolegioaren urtebeteko 250.000 euroko kreditua ordaintzeko.

Aurtengo Herri Urrats ez da ona izan eta ondoren, batik bat Hegoaldetik, jaso dituzte diru-laguntzak. Horri esker Herri Urratsen emaitza %20 emendatu du Seaskak.

milioi euro beharko ditu Seaskak. Azkeneko Herri Urrats ez da ona izan eta Jaurlaritzak azken hamarkadan urtero milioi bat euro pasatxo eman badu, datozen hiru urteotan 450.000 euro emango ditu urteko. Dena dela, Seaskak argi du Frantziako Gobernuak dituela betebeharrak, hari ordaintzen baitizkiote zergak. Indok ondoko hausnarketa egin du: “2.700 ikasle ditugu, bihar ixten baldin badugu non aterpetuko dituzte haur

horiek? Egoitzak egin beharko dituzte. Egun batetik bestera atzeman beharko luke te dirutza, gaur egun atzematzen ez dutena. Argi dago batzuek ez dutela gurekin lan egin nahi, ez dute euskararen alde egin nahi. Guk debate zozo horretatik atera behar dugu eta legeetara eraman: guk legeak betetzen ditugu, zuek zarete betetzen ez dituzuenak”.

Ikasle kopurua urtez urte gora doa; esate baterako, aurtun 180-200 haur gehiago aterpetu behar izan dituzte. Alabaina, legeak argi dio eskola pribatuei ezin zaiela dirurik eman eraikinak egiteko

Elkarriketa egin genion egunean Paxkal Indo Izpurara (Nafarroa Beherea) joatekoa zen bertako auzapezarekin hitz egitera. Philippe Rey Pirinio Atlantikoetako prefetak irailan bidalitako gutuna izango zuten hizpide. Bazterrak astindu ditu prefetak herriko etxeetan. Aurreko prefetak ere gauza bera egin zuen, baina oraingoak bi aldiz egin du. Kontua da herriko etxe guztietara gutuna bidali duela, gogoraziz herriko etxeek ezin dietela eskola pribatuei diruz lagundu eraikinak egiteko. Letra larrian jarri du prefetak ondoko mezua nolabait: “Kontuz, hori ez da egin behar”, eta letra txikian utzi du egin daitekeena, hainbat baldintza betez gero, herriko etxeek bai baitaukate eskola pribatuei eraikinak altxatzen laguntzeko modua. Prefeten mehatxuak mehatxu, hainbat herriko etxe moldatu dira orain arte Seaskari diru-laguntzak emateko, baina Philippe Rey bere lana fin betetzen ari da. Indok esan digunez, “prefetak segiko du poliziarena egiten eta guk pedagogia askorekin esplikatuko diegu auzapezei prefetaren gutuneko letra larria eta letra txikia”.

Kanpaina erraldoia buruan

Ez da segurua, baina Seaskak buruan darabil kanpaina zabala egiteko ideia. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak behera egin dutela eta prefeta ematen ari den astinaldia kontuan hartuta, ikastolen beharrak herriak bere gain hartzea litzateke asmoa. Bi bideak indar berberaz landu beharra azpimarratu du Paxkal Indok: batetik, botere publikoa sakatu, eta bestetik, herri mugimenduaren indarra baliatu, Seaskak herri mugimendu gisa segitu behar duela zalantzarik ez baitute. ■

Iñigo Muguruza

«Biktimen elkarteek harresi asko eraiki dituzte»

Moskuko petril mitikoan egin dugu zita. Ohitura zaharrei eutsi behar zaie...
Onak direnean, batez ere.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Apaizen artean ikasteak bizitza markatzen omen du.

Irudipena dut frantses iraultzak erlijio-gizon asko bidali zituela Gipuzkoara. Esaterako, nik La Sallen egin nituen ikasketak, eta halakoen lezioak jasotzea egokitu zitzaigun. Gurea ala eskola nazional katoliko espainola ziren aukera bakarrak, eta bi beso erlijioso horien artean harrapatuta egonik, alde guztietatik jotzen zizkiguten ostia fisiko zein psikologikoak. Onartzen dut nire buruarengan eragin izugarria izan zuela horrek, eta egiari zor, inbidia ematen dit alabak beste hezkuntza mota bat jasotzen duela ikusteak. Konstruktibismoak eta abarrek euren akatsak izango dituzte, baina gure hezkuntza erlijioso fundamentalista baino hobeak direla ziur nago.

Kontzienteki ala inkontzienteki, zuen etxean heziketa musikala jasoko zenuten. Ezin da kasualitatea izan hiru anaiak musikariak izatea. Eta izatekotan, kasualitate handitxoak litzateke. Gure gurasoek ez zuten inolako instrumenturik jotzen, baina amari esku-soinua izugarri gustatzen zitzaionez, oso umetan apuntatu gintuen klaseetara. Baina garai haietako klaseak oso gogorak ziren, oso direktiboak, eta guri atzerakoa ematen ziguten. Javierrek oso ondo jotzen ikasi zuen, baina goizetik gauera, zeharo nazkatuta, jotzeari utzi zion gerora berriz hasi bazen ere. Ferminek urte batzuk eman zituen, eta hark ere betiko utzi zuen, nahiz eta inoiz disko batzuetan esku-soinuarekin kolaboratu. Nire bidea motzagoa izan zen, hiru-lau urte pasa eta ikasketa metodo eta ereduaz erre-erreta atera nintzen. Gaur egun gitarra klaseak ematen ditut, eta ikasleak kontuan hartzen saiatzen naiz, baina orduan ez zen halakorik, irakasleentzat haragi sarraskitua baino ez ginen.

Eskerrak musika esku-soinua baino gehiago zela jabetu ginen.

Zer zen orduan musika zuretzat?

Nire bizitzako zatirik garrantzitsuenak. Nik ere neure egiten dut rock and rollak bizitza salbatu didala dioen esaldia. Oso gaztetan, anaia zaharragoen eraginez, Víctor Jara, Paco Ibañez, Kilapayoun eta enparauak entzuten hasi ginen, baita Pantxoa eta Peioren estiloko euskal musika ere, baina niretzat Dick Purple eta ACDC bezalako taldeak deskubritzea mundu berri baterako atea irekitzea izan zen. Pentsa, oraindik gogoan dut 15 urterekin Ingalaterran izan nintzela eta ACDC-ren partitura liburua eta MXR distortsio pedal batekin etorri nintzela bueltan. Anaia Javierren aplikadorean entxufatzen nituen gitarra eta pedala eta sekulako gozatuak hartzen nituen.

Kalean arnasten zen giroak jarri zuen zainetan zenekarrena irakiten?

Gure zonan punk talde mordoa ateratzen hasi zen eta guk ere Kortaturen lehen akordeak afinatzeari ekin genion. Puri-purian zegoen dena, batzuk disko gehiago saltzeko "Rock

Nortasun agiria

1964ko abenduaren 17an jaio zen Irunen Muguruza anaietan gazteena. Bere gitarra eta baxu akordeak zein ahotza eskaini dizkie Desband, Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak, Joxe Ripiau eta Sagarroi taldeei. Bestalde, *Nahia* izeneko film laburra zuzendu du, *Ezekiel* antzerkiaren eszenaratzea landu, eta haurrentzako liburu bat argitaratu.





Radical Vasco” deitu zutena sortu zenean. Une hartan olatu erraldoi bat jaio zen. Irrati libreak, fanzineak zein musika taldeak harrien azpitik ere ateratzen ziren. Gazteteen mugimenduak ere hortxe hartu zuen indarra, eta gu olatu erraldoi horren gainean mugitzen hasi ginen. Izugarria zen, edozein herritara joan eta ez dakit zenbat taldeko kontzertuak zeuden, sekulako mugida. Ez da ahaztu behar ordea, oso garai ilun eta latzak ere izan zirela, errepresio handia pairatu genuela, eta egun oso garai idealizatuak izan arren ez zela hainbesterako izan. Urte ederrak izanik ere, oso *peaje* garestia ordainarazi zigutela.

Zer leku zeukan euskarak saltsa horretan guztian?

Kuriosoa da Natxo de Felipe edo Ferminen gisara, orduan indartsu agertu zen jende asko euskaldun berriak izatea, edo Ruper-en kasuan bezala, euskara galdu eta berreskuratzen ibilita-

koa izatea. Kortaturen kasuan argi daukat asko lagundu zigula gazteleraz kantatzen hasteak. Gure lehen diskoaren 100.000 ale saldu ziren, eta jende askok leporatzen bazigun ere, ukaezina da gazteleraz hasi izanak gerorako oinarri bat eman zigula. Gu ere gure gabezia kontziente ginen, eta Ferminen bosgarren diskoa euskaraz egingo genuela iragarri arren, aurreratu egin ginen, eta gure laugarren diskoa, *Kolpe* *kolpe*, euskaraz da. Euskarak oso sentipen bereziak bizitzeko aukera eman dit. Oso berezia da aita zenarekin hogeitaz baina gehiago erdaraz hitz egiten pasa ondoren euskaraz mintzatzen hastea. Gure alabek ere euskaraz ikasten dute, eta esan daiteke gure etxean euskararen gainbeherari buelta ematen asmatu dugula.

Garai haietan, zuen zirkuituan ibiltzeko jarreraz gogorra izan beharra zegoen?

Ez ginen kamikazeak, baina orduko guztiek bezala, guk ere ostiak jaso genituen. Gogoan

dut, behin Gasteizen jo genuela, eta antolatzaleek argi esan zigutela gertatzen zena gertatzen zela kontzertua ez genuela eten behar. Grisak behin eta berriz kargatzen ibili ziren, eta gu hantxe jo eta jo, antolatzaleen lemari ohore eginez. Beste batean, Fermini botila bat jaurti zioten, eta lurrean botata odoletan ikusi nuenean, senetik irten eta publikora saltatu nuen errudunaren bila. Lehen lerroetan zeuden alemaniarrek erraldoiak ziren eta nire asmoa errudunari burukada bat aurpegi erdian ematea zen, baina era berean, ikusten nuen ez nintzela pare horretara iritsiko. Eskerrak ohartu nintzen neska batek bota zuela botila, nahigabe jo zuela Fermin, eta laguntzeko borondate osoa zeukala. Hortik pentsatu zer kamikazea nintzen...

Zuk ere laguntzeko borondate osoa izango zenuen, Kortaturen etapa itxi eta Nikaraguara brigadista joan zinenean.

Sei hilabete pasatzera joan nintzen eta lau aguantatu nituen. Oso gogorra egin zitzaidan, eta beste istorio batzuk tarteko, itzultzea erabaki nuen. Sandinistak oraindik gobernuan zeuden arren, mugimenduaren azken hatsa izan zen. Euskal Herriko eta Europako jende asko geunden bertan, eta European "Nikaragua sandinista" esatea jendearekin konektatzeko modua zen orduan. Tamalez, ni han nengoela, hauteskundeak galdu zituzten, eta nahiko etsita egin nuen etxerakoa. Amaieraren hasiera izan zen porrot elektoral hura. Gu Hondurasko muga geunden eta jendeak etengabe galdetzen zigun zergatik ez generaman armarik. Aldi berean, oso lotura estuak geneuzkan bertako jendearekin. Gauean, suaren bueltan, gauza askori buruz mintzatzeko parada izaten genuen, eta horrek ez dauka preziorik. Ez dakit egoera latzek momentu onak are hobeak bihurtzen dituzte-

"Oso garai ilun eta latzak ere izan ziren, gaur idealizatuak izan arren. Urte ederrak izanik ere, oso peaje garestia ordainarazi ziguten"

lako den, baina Nikaraguakoaz oroitzean gure aitonek soldaduskaz esaten zutena etortzen zait burura: momentu on eta txarrenak hantxe.

Nikaraguatik bueltan, Negu Gorriak-ekin igo zinen olatu gainera. Gaur egunetik begiratuta Herrera de La Manchako kontzertuak edo Mikel Anestesiaren intsumiso auziak zientzifikzioa dirudite.

Denbora aurrera joateak eten-gabeko aldaketak dakartza. Alferrik da irakurketa nostalgikoak egitea. Kortaturen eta Negu Gorriak-en garaia ez dira bueltatuko. Gaur egun, oso memento politiko interesgarrian gaude eta hori kontuan hartuta planteatu behar dira asmoak. Segur aski, Herrera de La Manchakoa bezalako asmo zorua plantan jarriko bagenu debekatu egingo lukete. Gauza asko aldatu dira. Sasoi hartan, euskal kausak askoz babes zabalagoa zeukan Espainiako Estatuan, eta Anestesiaren auziaren kasuan, intsumisoen mugimenduaren indarrak sekulako zilegitasuna ematen zigun. Baina euri asko egin du ordutik, eta orduan existitzen ez ziren biktimen elkarteek harresi asko eraiki dituzte. ETA-k Miguel Ángel Blanco hil izanak dena zaildu duen burbuila leherrezina sortu zuela uste dut. Estatuan Euskal Herriaren askapen borrokak babes handia galdu zuen, egurra areagotu egin zen, eta gaur egun indarrean dagoen debekuaren filosofia gailentzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka.

Gisako debekuek edo Galindoren salaketak inoiz ikaratu zaituztete?

Negu Gorriak-en ostean, Joxe Ripiaurekin Madril jo behar genuen batean, bertako lagun kazetariak *"van a actuar en Madrid los altavoces de ETA"* zioen emaila zabaltzen ari zela abisatu ziguten. Pentsa Joxe Ripiauk zer kon-

Orbetarren sagako azken liburua. Trilogiari amaiera ematen diona.

BESTEA MUNDUA
— Joan Mari Irigoren —

HARAGIAREN GAUAK eta EGUNAK
— Joan Mari Irigoren —

NOR BERE BIDEAN
— Joan Mari Irigoren —


HELDU LITERATURARI

elkar | www.elkarargitaletxea.com

AZKEN HITZA

Delirium Tremens

"Kortaturen azken kontzertua Delirium Tremensekin egin genuen, eta taldean sartzeko eskaintza luzatu zidaten. Nikaraguara joatekoa nintzen ezekoa eman nien, baina itzuli nintzen eskaintzak zutik zirauenez taldekide bihurtu nintzen. Deliriumen oso zalea izan naiz beti, eta izugarrizko abentura zen Irundik Mutrikura *Dos Caballos* batean entseatzera joatea. Bi urte pasa nituen eurekin herriz herri kontzertuak ematen, taldeko batera-joleak eta furgoneta eramaten zuenak Saturrarango Venezia diskoteka ireki zuten arte. Hantxe eman genuen Deliriumen azken kontzertua, eta esango nuke, diskoteka bat irekitzeagatik desegin zen talde bakarra garela".



ponente politiko zeukan, baina hala ere, kontzertua haustera joan ziren, bonba abisuak egin zituzten behin eta berriz, eta sekulako mugida muntatu zen. Hori ikusita, jakina pasatzen duzula beldurra, baina hemengo alardean askoz izu gehiago pasa izan dut. Galindorena beste plano bateko kontua da. Alde batetik ikusten duzu jendea zurekin dagoela, defendatzeko, laguntzeko, eta zure proiektua bultzatzeko gertu, eta bestalde, badakizu Galindo kakatan sartuta dagoela eta ez daukala askorik esateko. Gure ahotik atera zirenak orduko gizarte zibilaren gehiengo handi batek sinatzeko modukoak izateak ere zilegitasun izugarria eman zigun. Itzela izan zen artikulatu genuen erantzuna, Esan Ozenki-ko talde guztiek eman zuten kontzertua, batutako dirutza... Oso aberasgarria izan zen, ia-ia Galindo jaun txit gorenari eskerrak emateko modukoa.

Gaur egun auto-ekoizpena asko aipatzen den arren, zuek aspaldi ikusi zenuten Esan Ozenki, zuen diskoetxea, sortzeko beharra.

Ez da kasualitatea gure bi diskoren izenburuak *Gure jarrera* eta *Ideiak zabaldu* izatea. Gure jarrera islatu eta gure ideiak zabaltzea zen gure filosofia. Zentzu horretan berehala ohartu ginen guk kontrolatu behar genituela ematen genituen pausoak, eta horretarako Esan Ozenki bezalako tresna behar genuela. Baina gaur egun diskoetxeentzat asko aldatu dira kontuak. Internetek politika eta ekonomiaren panorama itxuraldatu duen gisan, kulturarena ere eraldatu du, eta gaur egun ezinbesteko elementua da merkatua ulertzeko. Salmenta datuei erreparatzen zionak argi eta garbi ikusten zuen olatuak industria azpian hartuko zuela, eta lehen diskoetatik ateratzen zuten dirua kontzertuetatik ateratzen saiatzen dira orain. Egun, diskoak aurkezpen txartelak baino ez dira. Dirua atera nahi duenak burua-

ri eragin beharko dio, eta esaterako, Elkar-ekoek diskoetatik ateratzen zuten dirua irabazi ahal izateko, *Gu Gira* bezalako proiektu batekin egin beharko dute aurrera. Lanik eta irudimenik gabe ez dago txanponik, baina tira, uste dut gutxiagorekin bizi daitezkeela, bizi gaitezkeela, eta zorionez ala zoritxarrez, hala bizitzea tokatuko zaigula.

Musikaz gain, zinemagintzan, antzerkigintzan eta liburugintzan sartu-irtenak egindakoa zara, baina orain aitatasuna da bizi nahi duzuna.

Sartu-irten horiek aita izan aurretik egin ditut. Orain beste fase batean nago, alaba txikiak dauzkat, eta oso garrantzitsua iruditzen zait beraiekin egotea. Horretarako ireki nuen parentesia ez ixteko, eta nire burua *stand by* egoeran mantentzeko ahaleginean ari naiz. Gerora, baliteke dena batera lehertzea, astindu ostean zabaldutako xanpain botila bezala. Ez dizut ukatuko ideia asko pasatzen zaizkidala burutik, baina sinetsita nago aita lanari eman behar diodala lehentasuna. Bestela ez dit konpentsatzen. Ez pentsa erabaki erraza izan denik. Iazko udan oraindik jotzen ari ginen, eta konturatzen nintzen etxean alabekin ez nintzela behar bezala moldatzen, ez nien puntua hartzen. Horregatik erabaki nuen eten bat egitea, baina ez nago oporretan. Aitatasunak denbora eta ahalegin asko eskatzen dit, eta gitarra klaseak ematen ere segitzen dut. Baina sormenak, nik ulertzen dudana gisan behintzat, beste exigentzia batzuk ditu, zure munduan, zure burbuilan sartzeko eta beste guztia kanpo utziz zureari soilik erreparatzea. Egun, ez dakit sortzeari berrekiten diodanean zer aterako zaidan. Kantak egiten jarraituko dudala uste dut, baina auskalo zer formatutan. Agian Interneten zintzilikatuko dut nire lana, akaso dohainik, liburu bat aterako zait beharbada... Denborak esango du. ■

Denbora galtzea, arrakastaren giltza

Nicholas Negroponte Internet munduko guruak *El País* egunkari espainiarrari: “Ez dut uste Twitterrek asko iraungo duenik”. Zeresana eman dute hitz horiek, iragarle fina dela erakutsi baitzuen Negropontek 1995ean argitaratutako *Being digital* liburuan –besteak beste, pantaila ukigarriak eta tinta elektronikoa aurrekusi zituen–. Oraingoan arrazoirik ote duen, hori beste errota bateko ura da.

GORKA BEREZIARTUA

DENBORA ASKO GALTZEN DELA esanda iragarri baitu Negropontek Twitterren gainbehera. Mezu laburrak erraz igorri ahal izatea interesgarria iruditzen zaio, baina Facebook “askoz erabilgarriagoa” da berarentzat. Irakurlea harritu egiten da horrelako baieztapenak leitu-ta, sare sozialen erabiltzaile den edonor jabetu baita Facebook ere oso tresna aproposa dela orduak alfer-alferrik xahutzeko. Twitterren baino aukera gehiagorekin, gainera: argazkiak, bideoak, taldeak, bat-bateko mezularitza... Horren aldean testuketa pixka bat baino ez du eskaintzen Twitterrek.

Baina demagun baietz, Twitterren erabiltzaileek denbora gehiago galtzen dutela gai-nontzeko Interneteko erabiltzaileek baino. Hemen proposatuko duguna da, horrek ez duela ezer porrotera eramaten Interneten, juxtu kontrakora baizik. Jean Baudrillard soziologo frantziarrak *Kontsumo gizartea* saiakeran azaldu zuen egoki: zibilizazio guztiek gorde dute beti zarrastelkeria kuota bat. Gehiegizko gastua, luxua, kontsumoan oinarritutako kapitalismoaren berezko ezaugarria da. Eta denbora da, beharbada, gizarteredu horren ondasun preziatuenetakoa: minutuek dirua balio dute eta alferrik galtzen ibiltzea, luxua da. Twitter, beraz, bizi dugun garaia-aren luxuzko produktua da. Denek lortu nahi duten gutizia. Horrek ziurtatzen dio arrakasta.

Kafetegi inkonformista baten alde

Baina argitalpen honen irakurleak espero du bestelako zerbait. “Ez ziren ba ARGIAKO



kazetariak hain konformistak bihurtuko!” dio bere baitarako. Ez ba. Baina torloju-a estutzen hasi aurretik aldizkari honetan publikatutako artikulua bat leitzeko proposatuko dugu. Nagore Irazustabarrenak 2.155. zenbakian argitaratutako *Iraultza kafeinatuak* du izena eta esplikatzen du nola XVII. eta XVIII. mendeetako Europar kafetegiak hezkuntzarako, hausnarketarako, negoziotarako eta asaldura politikorako gune izan ziren.

Tom Standage historialariak egin zuen konparazioa erabilgarria zaigu: “Kolektiboki, Europako kafetegiak Arrazoiaren Aroko Internet izan ziren”.

Baina Arrazoiaren Aroan hitz asperturako, denbora-pasarako eta nagikeriarako ere elkartuko ziren herritar-rrak kafetegietan. Kontua ez baita non. Norekin eta zertarako baizik. Eta –zalantzan gaude paralelismoa esplikatuko behar ote dugun baina– berdin gertatzen da sare-sozialetan. Twitterreko atea denbora galdu alde zabaltzen dituenak entretenimendu faltarik ez du izango: geroz eta gehiago dira, Negropontek esanak esan, sare horretan txioka ari direnak. Baina kafetegi guztietan bezala, elkar-ritzketak askotarikoak dira. Fribolitate handiena entzuten den mahaiaren alboan dago eztabaida sakonena. Horregatik, bestelako asmoak dituenak ere derrigorrez hartu behar du noizbait kafea barra horretan. Besterik da, behin zerbait antolatzen hasita, erdiguneko modako lokalean barik, ez ote den hobe leku ezkutuago batera joatea, zer gerta ere. ■

• Chavia Ali •

«Oztopo fisikoak gure arazorik txikiena dira»

Siriako behar berezidunen elkarteko lehendakari Chavia Ali, emakumea, elbarria eta kurdua da; “hiru aldetatik minusbaliatua”, askoren ustez. Baina Zuzenbidean lizentziatua den 29 urteko emakume ausart hau Ekialde Hurbileko desgaituen erreferente bilakatu da.

Testua eta argazkiak:
KARLOS ZURUTUZA



Emakumea Ekialde Hurbilean. Kokatu gaitazu.

Ez da erraza emakumea izatea, are gutxiago Ekialde Hurbilean. Familia tradizioak esklabo bihurtu eta bigarren maila batean jartzen gaitu. Gizonezkoei zerbitzatzeko bizi gara, baita euren seme-alabak erditu eta hazteko ere. Horixe gure betekizuna bizitzan.

Emakume elbarria Ekialde Hurbilean...

Are gogorragoa bilakatzen da gure bizitza. Eta zorigaitza etxean bertan hasten da. Emakume elbarria babestuegi dago, bere nortasuna ia desagertzera. Bestalde, aitek eta anaiek “hobe etxetik ez ateratzea” tesiari gogor eusten diote, hala “ez zaio ezer gertatuko”. Ez da harritzekoa, beraz, emakume elbarria eskolatu gabe gelditzea, irakurtzen ere ez jakitea... Familiari ez zaio bururatu ere egiten alaba langile arrunta izan daitekeenik etorkizunean. Ezertarako balio ez duen pertsona da.

Etxeko giroa da errudun nagusia, hortaz?

Batetik Ekialde Hurbileko tradizio itogarria dago eta, bestetik, gobernuen jarrera pasiboa. Gaiaz hitz egiten da, baina nekez galde-tzen zaie elbarriei legeak idazteko garaian. Horrela oso zaila da oztopo fisikoak desagerraraztea, edota baliabideak eskaintzea ikasle itsuei, edo gorrei... Oztopo fisikoak gure arazorik txikiena dira. Premia handiagokoa da gure eskubideak errespetatzea, eta gizartean integratzeko baliabideak eta neurriak jartzea.

Zeintzuk dira errespetatzen ez zaizkizuen eskubide horiek?

Oinarritzkoenak, hain juxtu. Esaterako, Ekialde Hurbileko elbarriok ez dugu ezkontzeko eskubiderik. Gogoan izan ezkontzatik kanpoko edozein sexu harremanek heriotza duela ordain hemen. Ez da harritzekoa, beraz,itsuak edo gurpilezko aulkian dauden

emakumeak bortxatzaileen presa erraza izatea. Gero, biktimaren familiak berak hiltzen du “legez kanpoko sexu harremanak” izan dituen senidea. Bortxatzaileak eta hiltzaileak, ordea, lasai irten daitezke kalera. Inork ez ditu kartzelara eramango.

Ohikoak al dira halako ankerkeriak?

Gisa horretako milaka kasu gertatzen dira Ekialde Hurbilean hileror. Burura datorkit sabela puztu zitzaion neskatoarena. Bere familiak haurdun zegoelakoan hil zuen. Baina gero autopsiak baieztatu zuen haurdunaldia ez, minbizia zuela neska gaixoak. Duela gutxi 15 urteko emakumeitsu bat etorri zen gure

“Ekialde Hurbileko elbarriok ez dugu ezkontzeko eskubiderik eta ezkontzatik kanpoko edozein sexu harremanek heriotza du ordain. Bortxatzaileen presa erraza gara”

bulegora, laguntza eske. Negar batean, bere aitak maiz bortxatzen zuela kontatu zigun. Halako batean, gizona bera sartu eta eraman egin zuen gure aurrean. Poliziari deitu genion berehala baina, orain arte, ez dut neska horren berri gehiagorik izan.

Alepon, nire hirian, 11 urteko neska baten kasua dut gogoan. Elbarritasun psikikoa zuen. Bere eraikineko hainbat gizonak egunero jaisten zuten garajera, bertan bortxatzeko. Horrela hainbat hilabetez. Bere elbarritasun psikikoa zela-eta, neska ez zen jabetzen gertatzen ari zenaz. Azkenean, jakina, haurdun gelditu zen eta bere aitak hil egin zuen “fami-liaren ohorea garbitzearren”. Nik dakidala, ez zen bortxatzailearik espetxera joan, ezta epaitua izan ere. Areago, berriki jakin dut haietako batzuk ezkontuta daudela, seme-alabak

dituztela... Funtsean, bizitza normalari eusten diotela, arazorik gabe.

Eta justiziak ez al du deus ere egiten?

Kontua da apenas hitz egiten dela horri buruz. Emakume elbarrien bortxaketak isilpean gordetzen dira, familiak errespetatzearen. Aipatu bezala, senideen ohorearen kontrako berebiziko kolpea da hau. Errudunak harrapatzea baino, biktima sekretupean hiltzea hobesten da. Ohorea hala garbitzen da gero. Kode penala gutxienez behin ezarriko balitz, kasu bakoitza aztertzeke aurrekari bikaina izango litzateke. Gainera, bortxatzaileak zigor bikoitza jasoko luke,

“Elbarritasun psikikoa duten emakume asko bonbak leherrarazteko erabiltzen dituzte, eurek ezer jakin gabe. Nazioartera ‘terrorista suizidaren’ irudi hori zabaltzen da gero”

bortxatutako emakumea elbarria izateagatik. Tamalez, oraindik ez da horrelakorik gertatu.

Gerra artean bizitzea ez da lagungarria izango...

Hala da. Gerrak utzitako anputatu eta zaurituen sorta itzelari gehitu behar diogu Iraken eta Palestinan bortxatutako emakume kopuru izugarria. Gauza jakina da, baina nekez aipatzen da horietako gehienak emakume elbarriak direla. Bestalde, elbarritasun psikikoa duten emakume asko bonbak eramateko eta leherrarazteko erabili ohi dituzte, elbarriek eurek ezer jakin gabe. Eta nazioartera zabaltzen den irudi hori, “terrorista suizidarena”, Ekialde Hurbileko emakume desgaituaz iritzi okerragoa izateko baino ez du balio. ■



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com



Konposturarik galdu gabe, betiere

Poeta-Gazte-Kaskarrak (PGK), nola ez, biziki eskertzen ditu Benetako-Idazle-Helduaren (BIH) debaldeko aholkuak, baina beren artean akaso sakoneko ezadostasun bat dagoela pentsatzen du. Izan ere, beretzat arteak eta literaturak ez dute helburutzat “irakurlearen zama arintzea”. Horretarako zenbait gauza aski egoki eta eraginkorrakoak bururatzen zaizkio. PGK-k ez du gogoko literatura arin(garri)a. Halako masokista da. Eta elitista. Eta ultraeskuindar arriskutsua. Eta espainola. Baina ez du gogorik parte hartzeko Txomin Agirre baino *kitsch*agoa izateko karreran. Askorentzat hori da benetako literatura balsamiko eta hunkiduraz betea, berari halakoak irakurrita auzo lotsa sartzen bazaio ere. Halako umea da. Eta inpresioa du balizko literatura sentibera eta sakon horren atzean benetan errazkeria, pinpirinkeria eta arinkeria gordetzen direla maiz. Hori bai, pentsatzen du PGK-k, zorionekoak sentiberatasun artistiko berezi hori garatu duzenok.

PGK-k, mikaztasun apur batez, euskal kulturako hiru kontsumo (sic) produktu aipatu dituelarik, laster etorri da BIHren bekaitza. PGK-k ondo daki Pignoisez eta Lucia Etxebarriaz trufatu izan balitz txalo zaparrada jasoko zuela, bibak eta gorak. Baina artistikoki hauen parekoak diren euskaldunak aipatzea, hori ez; hori erabat galarazita dago, heresia da. Hauek, musikari edo idazleak baino lehen, gutarrak baitira. Gora Gu ta Gutarrak. Gora Gure Gauzak S. A.

Susmoa du, hori bai, probokaziotxoak itsututa, BIH ez dela ohartu PGK-k idazten duenaren erdia asmatua dela, eta gainontzeko erdia, berriz, autoparodiko eta propio hanpatua. Egiazki, ez dela egon ez abendu hasierako oporrik, ez Iker edo Maialenik, ez eta inspirazio bila-

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padroin

ketarik ere, pelukeriako bertsolaririk egon ez zen gisa berean. Ez dela egon, azken batean, hark egotzitako esperientzia harrigarriarik. Bero-beroan, BIHk ahaztu egin du Roland Barthes-ek aspaldi esandakoa (PGK-k, jakina da, bere ezagutza mugatuaren exhibizioa egitea du laketa): testu bat ondo

interpretatzeko narrazioaren subjektua (autore inplizitua) eta adierazpenaren subjektua (autorea) bereiztea komeni dela.

Izan ere, BIHrentzat dena da serio bezain egiazko. Berean, ez dago parodiarentzako (zer esanik ez autoparodiarentzako) lekuri; parodia, ondo dakigun bezalaxe, beti izan baita bigarren mailako genero lohia. Jane Austen, George Eliot, Maria-Merçè Marçal, Itxaro Borda, oro parodista bikainak (ere), oro bigarren mailara kondenatuak. BIHri jazotzen zaizkion gauza guztiak dira osina baino sakonagoak, izan bere senarraren komentario argitsu bat, izan bere alaben adierazpen ezusteko bat. Hori bai muturra. Eta ez Londoneko pub retroak. BIHk, lurretik zentimetro batzuk gora higitzen delarik, ez du tupust egin eta erortzeko arriskurik batere. Eta horrela, nola egingo du ba bere buruaz barre?

Azkenik, PGKri deigarria egin zaio, azken asteotako artean, Anjel Lertxundiaren sariaren harira Ramon Etxezarretak Patxi Lopezi jaurtitako torpedoa. Testua irakurri bitartean ez zekien hogeita hama-

bost urte egin ote zituen atzera (edo aurrera). *Ustela* eta enparauen garaietara. Idaztea “astinaldi bortitzak ematea” zenekora; erortzeko arriskua hartuta idazten zenekora. Egungo zurikeria eta lore-joko-etatik aski urrun alajaina. Orain, Marketina eta Komunikazioa. Orain, idatzi bainoago, kudeatu. Idazle labelen kudeaketa eta zuzkidura barne, agidanez. ■

« BIHri jazotzen zaizkion gauza guztiak dira osina baino sakonagoak, izan bere senarraren komentario argitsu bat, izan bere alaben adierazpen ezusteko bat. Hori bai muturra.

» Eta ez Londoneko pub retroak

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA ETA IDAZLEA

Gurdiari tiraka

Euskal auziak udagoienean hartu duen bizkortasuna ikusita, ez dirudi lar zuhurra, idaztetik argitaratzera bizpahiru aste egonik, gaiari heltzea. Irailaren bostetik ia astero iritsi dira albisteak: ETAre agiri edo elkarriketak, independentismoaren sektoreen eta sentsibilitateen birkokatzeak eta urratsak, jeltzaleen sukalde lanak, PSOE eta PSEren tentuzko pausoak –baina pausoak, ahalik zarata gutxien egin nahita ere–, eta susmoak eta zalantzak, ilusioa eta mesfidantza... gaur *El Pais*en elkarriketa eta Zapateroren keinu txikiren bat, bihar beste urrats bat atzera ezker abertzalea hauteskundeetatik kanpo egongo dela esateko. Eta batek baino gehiagok idatzi duenez, gidoia idatzita dagoen sentipena. Edo horretarako gogoia, argian.

*Loiolako Hegiak*en argi adierazten du Arnaldo Otegi, aurreiritzirik gabeko bitartekariarekin eta parez pareko egoeraren, Estatuaren aurreko eztabaida erraz irabazteko gai dela ezker abertzalea. Funtsean herritarren hitza aintzatestea eskatzen baitu, hitz hori euren proposamenarekin bat ez baletor ere. Bistan da, egoera aldatu gura duenak gutxi du galtzeko. Baina unionistek errespetatuko ote lukete, Espainiatik bereizi eta euskal estatua sortzeko galdeketa? Eskozian ez dago zalantzarik,



DANI BLANCO

eztabaida termino horietan dago. Groenlandian ere bai. Amerikako Estatu Batuek ere, Gerra Hotzean aski probestuta, nahia go lukete puertorricorrek beren biderei helduko baliote gaur egun. Baina Espainiaren trauma da bere lurralde hautsia, inperioaren gainbehera lau mende daramatza eta ezin jaiki.

Dagoena bere horretan geratzeaz konforme, beraz. Status quo nahi duenak gauzak ez mugitzea du helburu. Jesus Egigurenek aitortzen dio Imanol Muruari, dagoenarekin gustura daude. Gatazka politikoa, dagoenarekin gustura ez gaudenon auzia da.

Estatutua ospatu behar dela, euskara ez dela politizatu behar... hitz hutsalak dira, dagoenari eustea helburu duenaren hitzak. Espainiarrek ez zeukaten autonomia-estatutuen beharrik, ez eta euskararen koofizialtasunik, behartuta onartu zituzten haiek. Zintzoak izatera, esango lukete autonomiarik ez dela behar, euskararen aitortpena ere kalteko dutela. Baina dagoenari eusten diote, horren alternatiba independentzia dela jakitun. Norbaitek ez bazuen horren berri, Auzitegi Konstituzionalak argi utzi du Espainiak ez duela emango autonomia gehiagorik, hain gutxi federalismorik. Lortzen dena, abertzaleek gurditik tiratzen dutelako izango da, beti bezala. ■

«
Espainiaren trauma da
bere lurralde hautsia,
inperioaren gainbehera
lau mende daramatza eta
ezin jaiki
»

TXANDAN

Igor Estankona



Urak beherengoan zeudenean jaitsi ziren hondartzara, Euskal Idazleen Elkartearen esku-tik, itsaski-biltzaile bi. Uxue Alberdi eta Oier Guilanek ontziak itsasoan utzitako bitsean egun gutxian aurkitu dutena ikusita harritu naiz. Literaturaren plaza den *hitzen uberan* berri honek harrapatu egin nau. Estekatu, zehatz esateko.

Igartzen da literatura zaleen iritzi eta aholkuak oso kontuan izan dituztela webgunea sortzeko. Arina da lehen kontaktua, amaigabea, ostera, bertatik abiatuta aurki dezakegun guztia. Begietatik sartzen da *hitzen uberan*, eta baita belarrietatik ere,

Uberan

ozeano horiek maite ditugunon gozamenarako.

Literatura gaur egun ez dago liburuetan soilik. Literatura izan daiteke Imanol Ubedaren abesti bat Itxaro Bordarena, Literatura Eskolako ponentzia bat, youtuben jarritako irakurraldi bat... Harkaitz Canok ikusarazi ei zien, *uberan* prestatzen ari zirela, literatura liburuetan bai baina Interneten, telesailetan, iragarkietan, erakusketan, kantuen letretan dagoela gaur egun.

Pisua kendu diete Uxuek eta Oierrek literaturari, ez sakontasuna. Sareak bota dituzte artearen uretan, eta literatura atera da. ■

Jakes Bortainu

AEK-KO KIDEA

Udazken beroa

A

zaroaren 6ko manifestaldien arrakasta mugatuaren ondotik, erretreten defentsarako mugimenduen azkena bizitzen ari garelako sentsazioa indartuz doa Frantzia-

ko Estatuan. Ez da ikusten beraz, auzitegi konstituzionalak bere iritzia eman ondoren, lege-aldarrikapena zerk trabatzen ahal duen. Sindikatuak azaroaren 23rako beste mobilizazio eguna iragarri badute ere, ez dira bat etorri orain arte bezala eta konsigna argi bat eman orde, lekuan lekuko egiturei utzi diete mobilizazioaren forma definitzeko ardura. Pasa den asteburuan, urrian zehar lurralde askotan sorturiko grebalarrien biltzar nagusietako delegatuen koordinaketa bildu da mobilizazioaren jarraipena sustatzeko, baina sindikatu nagusien greba deialdirik gabe, nekez eskaintzen ahal dio mugimenduari epe motzeko perspektiba. Sarkozyren erabateko garaipena ote?

Alta, 2010eko urriko erretreten aldeko mobilizazioa mugarri bezala geldituko da sozial borroken historian Frantziako Estatuan. Alabaina, izan dituen hamaika adierazpide, elementu berritzaileak eta iraupena guttitan ikusiak izan dira azken hamarkadetan. Nazioartean izan duen oihartzunak ere, ezohiko zerbait gertatu dela erakusten du. European barna bereziki, duela



DANI BLANCO



Goizegi da erantzun borobilak emateko. Pesimista bakar batzuek pentsatuko dute jendartean etsipena nagusituko dela eta borrokarako gogoia luzerako itzaliko. Alta, alderantzizkoa gerta daiteke



zenbait hilabete Greziako langileen oldartzearekin gertatu bezala, jende andanak batek erretreten aldeko mobilizazioa “pribilegio” batzuen defentsa baino, denek pairatzen dugun kapitalismo neoliberalari erresistentzia borroka gisa argi eta garbi ikusi du.

Mugimenduak ez badu bigarren hatsik lortzen zer geldituko da geroari begira?

Goizegi da erantzun borobilak emateko. Pesimista bakar batzuek pentsatuko dute jendartean etsipena nagusituko dela eta borrokarako gogoia luzerako itzaliko. Alta, alderantzizkoa gerta daiteke. Borroka politikoa galdurik ere (botereak ez baitu gibelerat egin) borroka ideologikoa irabazia izan da, jendarteko sektore zabal batzuek, lege proiektua injustua zela konturatzeaz gain, argi ikusi baitute ekoizturiko aberastasunen banaketa zela arazoaren muina, hedabideen propaganda hutsaren kontra eta gobernuaren gezurren artean. Horrek aztarnak utziko ditu. Halaber, erakutsitako indarra eta irudimena, bizi izandako elkartasun esperientziak eta antolaketa moldeak egiazko altxorak dira geroari begira. Gertatu dena aztertu eta teorizatzeko tenorea etorriko da (batzuek “bakezko gerrila sozial iraunkorra” kontzeptua asmatu dute jada) ondoko guduak laguntzeko. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Egiteko aroan bizi gara nonbait berrogei urte inguruko seme-alaben gurasoak. Eta ataka honetaraino etorriak, ni neu ere neurea egin beharrean nago. Nik ere neurek norbait eramaten zutenean, baldintzapeko arrestoan zeukatela esaten nuen, besteek bahiketa hitza erbiltzen zutenean. *Mister Ixak* eskema bera erabili du Segundo Mareyrena adierazteko. Bahiketa arrestatze. Ez nau harritu, orain arte gezurretan aritu izanak harritzen ez ninduen bezalaxe. Hizkuntza berean haziak izan gara. Niri horrek bizkarrekoak hartu behar izatea ekarri zidan, *Ixak*en makilek emandakoak. Hizkuntza

Aitortzak

berean, batzuek eman eta besteek hartu. Eta orain ere, bizkarra babestua. Ez du *Ixak* inork arrestatu, torturatu eta kartzeleratuko duen beldurrik, makilen jabetza berea du. Gary Cooper baten errebolberraren koskak ezkutuan, erakusteko imintziotan aritu zaigu publikoki, tertulia-kide lerdetsuentzat ari izan balitz bezala. Etxe baten eta lur mutur baten ametsa omen du, sei-zortzi hektarea aski. Eta nago, beltzek idatziko dioten bere memorien liburua saltzen hasia dela, best-sellerra izango duen kontakizunari hastapena eman diola errebolberrik gabeko kartutxera agerian. Hizkuntza aldatu gabea noski, horretan du bere balioa. ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Albistur

Bertso esaldia

Bertso bakoitzaren azken oinak jarraian irakurtzean, J.A. Artze-ren esaldi famatua agertzen da.

I

Artze-k azaldu zuen
problemaren funtsa
eta bere mezua
dakart nik honuntza.
Ikastoletan jaso
badugu hezkuntza
euskarari eskaini
beharko laguntza,
herri baten arnasa
delako **hizkuntza**.

II

Nahiz euskaldun sentitu
hainbat eta hainbat
zinez ba ote garen
zalantza badaukat:
bihotza euskalduna
ei dugu erabat,
baina, erdaraz mintzo
gara etxetik at...
Hala ezin daiteke
suspertu herri **bat**.

III

Adibidez, dendara
sartzean galdezka
gazteleraz mintzatu
ohi gara gu, ezta?
Txip aldaketa hori
egitera presta;
pentsatze hutsak sortzen
digu hainbat kezka,
baina, ahalegintzea
horren zaila **ez da**.

IV

Lau haizeetara hasi
orduko zabaltzen
haizea zurrumbilo
bilakatu al zen?
Euskararenugarra
ari da itzaltzen...
orain ez du txingarra
besterik azaltzen
ta gaitzerdi hausporik
ez badugu **galtzen**.

LANDER ARBELAITZ



V

Zer gerta dakioken
daki ondorenak...
biziraungo duela
esan dit barrenak.
Horretarako batu
ditzagun kemenak,
euskara erabiliz
euskaldun garenak.
Noizbait ikasiko du
gaur **ez dakienak**.

VI

Ez ote gara ari
kontzeptuak nahasten?
Ez al zaigu euskara
norena den ahazten?
Artze-k argitu zidan
niri azkenik-azken:
euskaldunok euskaraz
ez bagara hasten
erdaldun bat nolatan
hasiko da **ikasten**?

VII

Gure herria oso
anitza delako
euskaldunez gain daude
hainbat bestelako.
Euskara hartu behar
lukete aintzako
eta ulertzen behintzat
saiatu beharko...
Lortu ez duena da
nahi **ez duelako**.

VIII

Errurik ez du, baina,
euskotarra denak
erdaraz mintzatzean
euskaldun gehienak.
Gure baitan dauzkagu
irtenbide denak...
Ez ditu entzun behar
hain sermoi ozenak
bere hizkuntza zein den
garbi **dakienak**.

IX

Gure errua onartzen
ez dugu jakiten,
baina, neurea behintzat
ez dut ekiditen.
Buruari jardunda
asko eragiten:
euskara gabe ezin
banaiz plazara irten
bihartik hasiko naiz
beti **hitzegiten**!

X

Gure herria oso
anitza delako
euskaldunez gain daude
hainbat bestelako.
Euskara har dezagun
guztioak aintzako!
Denok geure moduan
lagundu beharko
euskara hiltzerik inork
nahi **ez duelako**.

XI

Artze bere garaian
ez zegoen pozik,
ez zuelako gura
hain herri eskasik.
Kontuak kontu denok
ahaztu dugu kasik
herriak ez duela
sortu euskal hitzik,
euskarak herri egin
gaituela **baizik**.

DOINUA: "Lagundurikan danoi".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Maria Eugenia Silguero

«Oreka perfektua du txeloak»

Bi urte eta erdirekin piano aurrean jarri eta melodia bat ateratzeko gauza izan zen. 4 urterekin heldu zion biolontxeloari eta 13rekin musikako goi mailako ikasketak amaitu zituen, Matrikula eta Ohorezko Saria lortuz. Makina bat premio jasoa da eta, besteak beste, Philippe Muller handiarekin ikasia. Ibilbide meteoriko horren ostean, etorkizun oparoa du Maria Eugenia Silguero biolontxelista gazteak (Irun, 1988).

MIKEL GARCIA

Argazkiak: M.E. Silguerok utziak

Zure aitzak kontatu izan du nola herriko jaietan jabetu ziren zure talentu handiaz, bi urte eta erdi zenituela pianoan San Martzialgo Martxa jotzen entzun zizutenean...

Oso txikia nintzen eta ez dut gogoratzen, baina aitzak askotan kontatu dit anekdota. San Martzial Egunaren biharamuna zen, eta aurreko eguna San Martzialgo Martxa entzuten eman nuenez, buruan iltzatuta geratu zitzaidan. Pianora igo eta melodia jotzen hasi nintzen nire hatz txikiekin. Aita goiko pisuan zegoen eta entzundakoan pentsatu zuen ama zela pianoan ari zena... Ni nintzela jabetzean, aitzak ez zuen sinesten eta amak esan zidan: "Tira, Maria Eugenia, erakutsi aitari pianoan jotzen ari zirena", eta hala deskubritu zuen aitzak musikarako nuen zale-tasuna.

Ahizpa eta hiru anaiak ere musikariak dituzu. Zein erru du horretan guztian zuen aita Jose-txok, musikari eta musika irakasle?

Erru guztia, kar, kar, kar. Aitarengatik ez balitz, seme-alabak ez ginatke orain musikari profesionalak izango. Anaia nagusia, Jose-txo, saxofonista da, Juan Jesus flautista, Javi tronpetaria eta Maria Carmen pianista. Eta nire anaien seme-alabak ere hasiak dira musika munduan murgiltzen. Musikaren eragina oso handia da gure familian.

Haur prodijio izatearena asko entzun behar izan zenuen? Oso sakrifikatua izan al da bidea?

Askotan entzun behar izan dut, bai, baina ni ez naiz inoiz horrela sentitu. Oso txikia nin-



Silguero, Golden Silver duoko bikotekidearekin, Rodrigo de Vera Díez.

tzen eta ez nekien oso ondo haur prodijio izatea zer zen. Nekien gauza bakarra zen txeloa jotzea ondo ematen zitzaidala, marrazteko erraztasuna duenaren antzera, baina gainontzeko haurren moduan aritu naiz: eskolara nindoan, zinera, lagunekin... Desberdintasuna zera zen, eskolako gaiez gain txeloa eta kontserbatorioko ikasgaiak ere estudiatu behar nituela. Ordu asko sartzen nituen eta kasik ez nuen denbora librerik. Baina ohituta nengoen eta ondo eramane nuen.

16 urterekin zure lehen konposizioa erregistratu zenuen: *The Dream*. Espainiako Estatuan halakorik egin duen pertsonarik gazteena zara. Pianoarentzako konposatu nuen. Oso gustuko dut pianoa eta *bobbya* da niretzat. Erraza izan zen obra konposatzea, pianoan jarri, inprobisatzen hasi eta gero papereratu egin nuen. Atsegin ditudan soinu bandetatik hartu nuen inspirazioa. Halere, ez dut nire burua konpositore ikusten etorkizunean, zaletasuna da gehiago.

Izen handiko irakasleekin ikasi duzu. Horien artean, Philippe Muller biolontxelista.

Gizon zoragarria da. Oso umila, eta lotsati samarra. Eskola orduetan denbora ziztu bizian igarotzen zen harekin. Muller-ekin Parisen hasi nintzen ikasten, Donostian goi mailako ikasketak bukatu ostean. Sei urte eta erdi eman nituen berarekin.

Rostropovich, Alfredo Kraus, Natalia Shakhovskaya... ere zur eta lur utzi zenituen!

Eta Frans Helmersonn, Radu Aldulescu, Luís Claret, Demetri Motatu, Roman Jablonski, Asier Polo... Denak bat datoz: ez dute nire moduko kasurik ezagutu eta hedabideetan euren adierazpenak jasotzen zituzten, baina esan bezala ni gainontzeko haurren modukoa nintzen, eta hala sentitzen nintzen.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoan aritu zara eta egun, Malagako Sinfonikoan zaude. Zer moduzko esperientziak izan dira?

Oso onak. Euskadikoan bi urtez aritu naiz, oso gustura. Pila bat ikasi nuen eta oso maitatua sentitu nintzen gainontzeko musikarien artean. Bakarlari aritzea oso desberdina da (hala egokitu zait Bilboko orkestrarekin, Zaragozakoarekin, RTVEkoarekin...), orkestraren baitan bat gehiago zara ehun musikariren artean, eta horrela aritzea erraza eta dibertigarria da. Lasai ateratzen naiz eszenatokira. Malagan hilabete eta erdi daramat

“Musika klasikoan dena da oso kultua, zurruna, oso neurtua. Aldatzen ez diren jarraibideak daude, eszenatokian egoten ere jakin behar delako”

jotzen eta bizitzen, eta oso pozik nago. Bestelako giroa da eta jendeak ondo hartu nau. Eta klimarekin pozarren nago!

Biolontxelorako konposizio asko eta onak daude, ala anaia txikia da, biolinarekin alderatuta?

Nik ez nuke esango biolontxelo biolinaren anaia txikia denik. Txelo eta orkestrarako obra asko dago. Geroz eta jende gehiagok ikasten du txeloa, denetik duen instrumentua

baita: soinu altuak eta baxuak ditu. Niretzat oreka perfektua dauka.

Musikari maila ona al da Euskal Herrian?

Bai, geroz eta hobea. Duela 28 urte, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortu zenean, euskal musikariekin egin nahi izan zuten, baina maila ona ez zegoenez Europara zabaldu behar izan zituzten ateak. Gaur egun ordea, maila izugarri igo da eta oso musikari onak daude hemen.

Zortzi txelo

“Zortzi txelo ezberdin ditut, horietatik bost neurri txikikoak. 4 urterekin hasi nintzen txeloa ikasten eta nire neurriko bat behar nuen. Gero, hazi ahala, handiagoa hartzen joan naiz. Azkena 13 urte nituenetik daukat eta italiarra da. Ia hamar urte dira jotzen dudala eta zenbat eta gehiago jo, orduan eta hobeto moldatzen da instrumentua jabera eta alderantziz; geroz eta soinu hobea dauka. Soinu oso garbia eta aldi berean gozoa du. Muller irakasleari izugarri gustatzen zitzaion txelo hau, hainbatetan utzi nion, berak jo zezan”.

Birtuoso-mundua da musika klasikoarena. Elitismo handia dago ala topikoa da?

Elitismo handia dago, bai. Musika klasikoan dena da oso kultua, zurruna, oso neurtua. Frakarekin, gau-soinekoarekin, beltzez... Aldatzen ez diren jarraibide batzuk daude, mantentzen direnak, eszenatokian egoten ere jakin behar delako.

Golden Silver duoa sortu zenuen 2007an, Rodrigo de Vera Díezekin batera. Oso desberdina al da bikotean eta orkestran aritzea?

Bai, oso. Orkestran lasai aritzen naiz, familia handi batean sentitzen naiz. Bikotean aritzea askoz konplexuagoa da, batzuetan erraza ez den elkar ulertzea eskatzen du. Entsegu asko egin behar dira eta nola jo nahi dugun adostu behar dugu. Bakoitzak bere iritzia ematen du, baina Rodrigo eta biok bikote gara duela zazpi urtetik, oso ondo ezagutzen dugu elkar eta jada begiradarekin elkar komunikatu gaitetzke.

CD bat grabatu duzue AusArt Records diskoetxearekin. Zer nolako konposizioak bildu dituzue?

Elkarrekin grabatu dugun lehen diskoak hainbat autoreren obra motzak biltzen ditu, garai ugari ukitzen dituztenak. Asko gustatzen zaizkigun obrak dira eta horregatik grabatu ditugu, baina kontzertuetan zuzenean grabatutako CD gehiago ere baditugu, lehenengo diskoko erreperitorioarekiko desberdinak: Beethovenen sonatak, Franck, Franck-cœur...



Silguero musikari ospetsu askoren aurrean jo du, horietako bat Mstislav L. Rostropovich txelista errusiarra (ezkerrean). Donostiako Victoria Eugenia izan zen, 1995ean, Rostropovich kontzertu bat ematera etorri zenean. 7 urte zituen irundarrak. Goian, 20 urte zituela RTVEren orkestrarekin bakarlari, Madril.



Facebook-en bat egin duzu "Antonin Dvorak-en Biolontxelorako Si minorren Kontzertuaren fanatiko" taldearekin...

Nire obra kuttuna da. Biolontxelorako erreperitorioan dagoen garrantzitsuenetakoa da, eta zirrargarrienetakoa. Duela gutxi Malagako Filarmonikarekin jo dugu. Orokorrean, Dvorak-ek egin zituen konposizio guztiak biziki atsegin ditut, Mundu Berriaren Sinfonia ere asko gustatzen zait, adibidez. Musika klasikotik at, pelikuletako soinu bandak ditut gustuko; Hans Zimmer dut gogokoen. Eta *txunba-txunba* eta *dance* musika ere entzuten dut noizbehinka, kar, kar, kar.

16 urterekin egin zizuten elkarriketa batean zenioen zure nahia zela mundu guztitik kontzertuak ematea, musika eta bidaiak direlako gustukoekin duzuna.

Berdin pentsatzen jarraitzen dut. Batzuetan bakarlari edo ganbera musikan aritzea suertatzen zait eta bidaiatu dezaket, baina ezin da bizi soilik kontzertuak ematek. Lan finkoa behar duzu. Handienak ere, Rostropovich-ek, irakasle plaza finkoa zuen. Eta gainera asko gustatzen zait orkestran jotzea, ikasten jarraitzea eta noizbehinka kontzertuak ematea ahalbidetzen didalako. Bateragarriak dira, antolatzea da gakoa. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



XiLaBako finala

Nor da X?

Iragan da azaroaren 13a, iragan da Xilabako (Xiberoa, LApurdi eta BAxenabarreko) xapelketa. Ekhi Erremundegi, Miren Artetxe, Sustrai Colina, Joanes Etxebarria, Xumai Murua, Amets Arzallus, Eneritz Zabaleta eta Odei Barrosoren finalak, ordea, segitzen du izaten orainean, oroitzapenak utziko baititu nik uste. Giroaren begiratzea aski izango da. Beharbada, tokiak nahiko zuen, ibiagoitzekoa jai alaia izan baitzen, beti xapelketak eskaintzen duen giro serioan segituz.

BIXENTE HIRIGARAI



GAIZKA IROZ/BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

DENAK ADI, denak gozamenean hartuak, denak X ezagutzeko zain. Xapelketa XXX lelopean jarria, X bakoitzak erranahi anitz izan ditzakeela erakutsi digu Iparraldeko Bertsularien Lagunak elkarteak. Lehenik, Xiberua, Baxe Nafarroako eta Lapurdiko probintzien izatea markatzen dute, nahiz finalean, bi X baizik ez izan, Baxe Nafarroa ez delako oraindik finalera ailegatu. Baina, hau izan daiteke aurtengo urrats berria, bigarren Xren agerpena finaleko oholtzan. Urte bakoitzak bere berezitasuna du. X, baita Xapelketaren “X” da ere, Lapurdi, Baxe Nafarroan eta Xiberuan erroztako Xapelketa, bertako nortasun bat, hemen-dik gairi Txapelketa delako. X ezezagunarena izan daiteke baina ez matematiketako ekuazioetan bilatzen den x perfektuarena, ekuazioaren emaitza bertsularitza delako, hau emaitza zehatz bat izan gabe, baina, zabala eta pertsona bakoitzak bere x desberdina duelako. Beharbada Amets X xapelduna, beharbada lehen aldikotz finalean agertzen den probintziako Joanes X, beharbada buruz-burukoan Ametsekin agertu den Odei X...

X batean X bakoitza

Entzuleak, X berri bat nabarmendu zuen euskalkian, zein euskalki honen jabe den pertsonak ideien eramateko duen indarkerian.

Finalean ziren 1.900 pertsonen parada ukan zuten ereiten eta hazten ari diren hazi guzien baloreen gozatzeko, aintzinetik, Xilaban abantzu hila zegoen bertsularitza jarraitzen segitu zuten eta duten pertsonaien argazkiak oholtzaren bi aldeetan zintzilikaturik, besta honi so.

Xiberuako irudi bezala agertu zen Joanes Etxebarria. Hau berrikuntza bat da eta berri on bat, erakusten baitu, Lapurdi ez ezik, bertsularitzak garrantzia hartu duela, Maule inguruan batik bat. Haatik, honek ez du ahantzi xiberutarra izateaz gain, Bizkaiko odola ere baduela oroitaraztea bere bakarkakoan, hitzari erantzunez. Baina, bi elementu hauek itxurak baizik ez direla adierazi du, euskalduna delako oroz gainetik. “Izatez euskalduna niz eta/ bestia itxura baizik”.

Publikoak gustura hartu zituen Joanesen bertsuak, hauek berezitasuna ez baitzuten falta. Kanporaketa eta finalerdietan jadanik, ideia berrien ekartzeko duen ahal honen erakustea ez zitzaion ahantzi bertsulari berriari. Hastapenetik bere aztarnak utzi zituen, zortziko handian Amets Arzallusekin ukan zuen ofizioan: “Biak, igandero, mezara zoazte. Gaur, betiko apezaren orde, apez gazte bat agertu zaizue”. Ametsek apez berria maite zuela komentatu bazuen ere, Joanesek apeza aldatuz ere, meza berdina egoten zela ohartarazi zuen, erlijioaren prediku monotonoei erreferentzia eginez, agian. Odei Barrosorekin eginiko seiko motzeko ofizioan, bikote bat osatzen zutela, XX gomita bat jaso zuten. Odei joatekotan zen, baina, Joanes ez. Lehenak, konbentzitzen zuela “eta ezartzen ahalko diozu hirugarren

X”-rekin bukatuz, besteak zuzendu zuen “ez dük bertsuen gomita bat, hau dük erotikua” ihardetsiz. Bere publikoa egin zuen. Baina, batzuetan, entzuleak bertsularitzako Xiberu berriaren irudia gehiegi jartzen ziola zirudien. Bakarkakoan, gaia emanda, azken lerroa bukatu gabe jendea txaloka hasi zitzaion, aitzinekoa umorezkoa izan baitzen. Dena den, goresmenak hari eta Xiberuari!

Erantzukizuneko erantzunak

Bertsulari batentzat, bertsu bat egitea gaiari erantzunez zerbait da, aldiz, ofizioko kideari erantzutea, beste zerbait. Ez dezagun ahanztu, ofizioak ekarrazten duen bidea elkarriketa dela funtsean eta, usu, entzule batek bertsu bat ontzat hartzen duela aitzinekoari erantzuten diolako. Gisa guziz, finaleko bertsulariek, orokorrean, ez zuten ahanztu ezaugarri hori, elkar entzuteko saioa izan baitzen. Adibidez hartzeko, zortziko nagusiko hirugarren bikotean, Odeiek Eneritzen kezkei erantzuten zien, biak presondegiko pasabidean elkarri atzeman ziotela. Eneritz: “Nola (eg)iten da gauean ziegan/ez bakarrik sentituzko?”. Odei: “Hamaika aldiz irakurrita/igorritako gutunak”. Hau erantzun irringarria izan zen, bere aitzineko bertsuan, Odeiek, presondegian hamar urrats egiten zituela aurrera eta atzera erran eta gero, hamar zenbakiaren hurrengoa zein zen ez zekiela aitortu zuelako. Ondotik, distantzien arazo erreala dela-eta preso hurbilekoentzat, Eneritzek galde egiten zuen Pariseraino oso-osorik etorriko ziren. Odeiek ez zuen denborarik galdu ihardesteko: “Gure bihotzen artean ez da/ kilometrorik jartzen (ah)al”. Bestalde, Xumai eta Sustrai norgehiagoka ari izan ziren hastetik buru seiko motzean. Sustrai Xumai bere auzokidearengana zihoan, bere etxeko arbolak, Sustrai jarritako plaka fotoboltaikoei itzala egiten baitzien. Xumaik jarri baino lehen gehiago pentsatu behar zuela bota zion, bere aldi, Sustrai, bere teilatua ez baina bere arbola bota zitekeela ohartaraziz. Xumaik soluzio gisa eta umore handiarekin, ispiluak jarri behar zirela adarretan pentsatu zuen. Ispiluek argia hartu bazuten ere, bere auzokidea ere iluminatua zela kantatu zuen bigarrenak. Ezin genuke baztertu ere, saioan zehar erakutsi den maila, bertan, ez bakarrik azken lerroari garrantzia emanez. Ideien loturek, arrazoi garbiak ekartzen zituzten, azkenean, bukaerako ondorrora heltzeko. Modu honetan agertu zen Xumai, aitzineko saioetan baino seguruago eta ideia ederrekin ere. Gainera, Joanesez ere teknikoki hobekuntzak egin zituen, kanporaketa eta finalerdiari konparatuz, betiko umorea atxikiz. Zailtasunekin agertu arren, Mirenek, bere abantailarako jokatzan dituen ideiak ongi konektatuak zituela nabarmendu zitzaion Sus-

Korapiloa

Gure korapiloak diren bi estatu, guhaur ere ez al gira korapilatu? Korapilo borobil edota karratu, korapilo anarko edota sakratu... Puntak nola hartu ta zilotik sartu, nola estekatu, dugu estudiatu. Noiz ikasiko dugu nola askatu?

Ametz Arzallus

traiekin eginiko ofizioan, hamarrekotipian. Gauza da, egun guztiak desberdinak direla bertsularitzan, izan dadila gaia, gogoia, prestakuntzaren arabera. Gaiak onak izan ziren, serioak eta umorezkoak tartekatuz. Batzuetan, gehiegi luzatzen ziren, bukaeran elementu gehiegi sartuz eta aitzineko saioetan bertsulariei emandako puntuak zabalegiak izanez. Bestalde, azpimarratu behar da gaietan saihesten ahal zen erdaldunker bat: “patioa”, Odei eta Eneritzen ofizioan. Ez dut pentsatzen bertako entzule guzien ulermenekoa izan zela hitza, gainera, espainolek hartua den hitz batentzat. Jendeak “pasabidea” hitza ere biziki ongi ulertuko zuen. Nahiz gorabehera batzuk izan, saioa izugarria eta ederki apaindua izan zen.

Ametsei eutsi, Ametsi eutsi


Anitzen ezustekoa izan zen, buruz burukoan kantatuko zutenen izenak Joana Itzaina gai emaleak ahoskatzerakoan. Odei agertu zen Sustraien aurrean Ametsekin aritzeko. Hauek dira xapelketa bateko sorpresak, bainan, leku hori merezi zuen bertsolari gazteak eta bere lekua hor zeukala ere biziki ongi erakutsi zuen. Lehen ofizioa pasa eta, etorri zen kartzelako lana. Hitza, “korapiloa” izan zen. Biak neurri korapilatsua jorratzen jakin zuten eta ideia berdintsuarekin bukatuz, hau da, korapiloaren askatzea. Biek argi eta garbi azaldu zuten bederatzi puntuko motzean eginiko bertsua, jendeak gozatu zituen bi botzekin. Baina, gehienak hunki zituen Ametsena izan zen, bukaera ez ezik bere osaketa bete-betea zelako. Bi estatuetan preso den herri honen egoera metafora batean eman zuen, korapiloak egiten biziki ongi ginakiela adierazi ondotik. Bere kantatzeko erak bukaerako sei silabako lau lerroak erraztasun konparaezin batekin lerrarazi zituen pilotaleku osoan barna. (ikus koadroa)

Gaiari erantzutean, Odeik xapelketa honetarako prestakuntza handia erakutsi zuen. Gaia, iragarki bat ikusi zuela “etorkizuna zure eskuetan dago” idatzirik, hiru bertsu osorekin, ideia berriak ekarri zituen aldiro, azkenean, etorkizuna bere eskutan hartzen saiatuko zela aitortuz. Odei izugarria izan zen, saio osoa lasai eramanez, aipatzekoa den segurtasun batekin. Ametsi eusteko azkarrean agertu da, bainan azken finean, aurkari honek ezin eztabaidagarriak diren bere maila eta esperientzia ez ditu sakelean atxiki, bigarren aldikotz Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuako xapela janzteko. Amets izan da lehen, bertsolaritza izan da garaile! Denen buruan egon dadila egun hori!

Ea bi urte baino lehen, beste hitzordu batzuk finkatzen ditugun bertsoen gozatzeko plazan! ■

Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Hego hemisferioan izandako lan bidaietan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da.

Hondartzan bildutako egur puska, harri eta itsas-hondakinak bezalako zerbait dira... "Eta etxera daramatzazu, batzuk bakarrik. Ez dute areetan zegoena errepresentatzen. Ez dute hondartzan gertatutakoa biltzen. Halaxe dira testu pusketok, lagunentzat tarteka bildutako zatiak".

Antzerkia

Belaunaldi baten errautsak

Errautsak antzezlanaren aurkeztu berri dute Le Petit Théâtre de Paine, Artedramak eta Dejabuk elkarlanean. Luhusoko Harri Xurian muntatu eta estreinatu ostean azaroan Euskal Herria zeharkatuko dute, oholtzatik oholtzara belaunaldi oso baten ametsen errautsak banatzen.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Ainhoa Resano



Kutxa bat eta sei pertsonaia. Eta Odei. Guztiei hil berri zaien laguna. Horixe da *Errautsak* antzezlanaren abiapuntua.

ODEI HIL DA. Lagun talde bateko zazpigarren kidea. Haren gorpua barnean duen kutxa ikus daiteke oholtzaren erdian. Haren lagunak, berria jaso eta gutxira, traje zurrunez jantzita joango zaizkio, begiak beltzez kristaldurik. Belaunaldi bereko sei lagunak azken agurra emango diote, oholtzako airea apurka eta kantatik kantara beteko duen festa gorabeheratsuaz. Azkenean ez dugu jakingo Odeiri buruz mintzo diren, edo haien gaztetako ametsen, ideien eta oroitzapenen errautsez.

Ainara Gurrutxaga, Ander Lipus, Manex Fuchs, Miren Gaztañaga, Urko Redondo, Ximun Fuchs. Oholtzatik oholtzara ikusi ahal izan ditugun aktoreak denak. Igor Elortzak eta Unai Iturriagak inprobisazioari esker idatzi dituzte antzezlaneko hitzak. Bada antzerkiaren gain elkartzen dituen gauza ugari: belaunaldi berekoak dira, eta haien mamuak gonbidatu dituzte oholtzara, festa betean. Ximun Fuchs-en esanetan hori bera izan zen *Errautsaken* hazia: “Zer egin dugu gure ametsekin? Erraten



Agertokian elementu gutxi azalduko dira *Errautsaken*. Egurrezko kutxa, aizkora... eta askoz gehiago ez. Hustasun eszeniko horren eraginez, aktoreen lanak bestelako garrantzia hartu du.

ahal da Euskal Herria dela kasik Europako azken lekua non 70eko hamarkadako ideologia transmititu zaion gure belaunaldiari. Iraultzan sinesten da kasik oraindik. Espainian eta Frantzia gure belaunaldikoak zinikoak dira, beharbada izanen dute ekologismotik zerbait. Gure belaunaldiak zer atxiki du jaso duen horretatik? Izan ere, bada distantzia bat ideia horiek izatearen eta errealtateko bizitzaren artean”.

Hari horretatik uztartuko dira pertsonaien behinolako gogoak, asmoak, harremanak eta porrotak. Pertsonaia bakoitzak badu bere perfila: hipotekatuta bizi dena, gaztaroan bezala geratu dena, euskaldun bidaiaria, herritik mugitu gabe geratutakoa, euskaldun perfektua... Hala ere, denok izan dezakegu bakoitzetik zerbait. “Guztietan ezagutzen dugu gure burua nonbait, baita publiko bezala ere”.

Antzezlanean gorpua dagoen kutxa erabiltzeko modua zuzenean dago lotuta Lekeitio inguruko Kaxarrankarekin, eta haren sinbologia erabiltzeaz gain Odei bera metafora ere bat izan liteke. “Zer da 35 urte ditugularik errausten dugun gure belaunaldiaren ondasun hori, zer abandonatzen du gure belaunaldiak?”.

Gogoetarik badago *Errautsaken* hondoan, baina oroz gain teatroa da, bizia eta dinamikoa. Ximunen ustez, ez dute eskainiko erantzunik. “Ez dugu aski distantziarik, hainbat ate ixten dira eta gero berriz ireki. Azkenean pailazarena egiten dugu, hori baita gure lana”. Pailazoa edo are, bufoia, Manexek dioenez: “Gure buruaz trufatzen gara. Zernahi gisaz,

distantzia bagenu ere, demagun 40 urte barru, orduko gazteek pikutara bidaliko gintuzkete. Jendeak gure krudeltasunari esker irri egiten badu, horrek ekarriko du erantzun sorta bat”.

Bost euskalki eta batua, koadrila berean

Ximun Fuchsek aktore lana betetzeaz gain antzezlan zuzendu ere egin du. Berak antzeztutako *Juglarea, puta eta eroa* bakarrizketa etortzen ahal zaio gogora ikusleari, kutxa baitzen orduan ere oholtzaren ardatza. Manexek iradokitzen duenez, teatroa mugimenduan dagoelako da teatro, bilakaeran dagoelako. “Badira seguru beste antzezlan batzuen arrastoak ere”. *Juglarea*n Ximunek hiru bakarrizketa bildu zituen, bakoitza euskalki batean. *Errautsaken* kasuan sakondu egin da teatroa eta euskararen arteko harremanean, pertsonaia bakoitzak bere euskalkia baitu. Ximunek dioenez, hasieran batua eta zuka hitz egiten saiatu ziren. “Zerbait falta zuen hitzak, azken finean bakoitzak beretik ematea. Hartu dugun bideak batetik dakar metafora kutsua indartzen dela, ez delako horrelako koadrila asko egongo Euskal Herrian. Nire ustez publikoaren entzumena behartzen du horrek. Bestetik indar berezi bat: azkenean hika egiten dugu denok eta horrek hurbiltasuna ematen dio lanari”.

Mendebaldekoa, erdialdekoa, nafar-lapurtera, nafarrera, zuberera eta batua lagun talde berean. Manexek oroitzen duenez haiek bizi izan dute antzeko egoerarik: “Iparraldeko ikastoletan baziren zuberotarrak, nafarrak, lapurtarrak... baita bizkaitarrak ere, errefuxiatuen seme-alaba antz baitzen. Batzuetan baziren ikasten genituen hitz berriak, baina ez dugu sekula izan hizkuntza arazorik”.

Funtsezkoa izan da, nolanahi ere, Igor Elortzaren eta Unai Iturriagaren lana, aktoreek inprobisazioetan sortutakoari forma ematerako orduan. Ximunek aitortzen duenez gidoi moduko bat egina zuten aurretik, aktoreen lanean oinarriturik. “Laster konturatu ginen ez garela oso idazle onak. Horrelako lagun talde bat elkartzen delarik, haien artean errateko moldeak egoten dira, istorio komun bat antzeman behar zen mintzatzeko moldean. Hurbiltasunak dakarren goxotasuna, zirkotak...”. Antzezlanaren arimarekin jarraitzearen, beren belaunaldiko bertsolariak bilatu zituzten lan hori egiteko. “Iparraldeko teatro moduek badute moldeetan eta publikoarekiko harremanean loturirik bertsolaritzarekin”.

Eta kantua ere ez dabil bertsoetik urrun, aktoreek doinuz lotuko baitute akzioa. “Kantua haria dira antzerki guztian. Horrek biltzen gaitu oraindik, horrek permititzen du talde bat berriz eraikitzea, eta aldi berean memoria lan hori egiten da: badira kanta tra-

‘Errautsak’ irakurtzeko moduak

Antzezlanak berez kontatzen eta iradokitzen duenetik harago, bada lerro arteko irakurketa ugari ere: euskaraz sortua da, euskalkia aintzat hartuz, testuaren kalitatea bilatuz baina, era berean, sormen prozesutik abiatuta eta ez testu itxi batetik. Lengoaia propioen bila dabilzan taldeak elkartu dira lanerako, Harri Xuri bezalako espazio batean lan egin dute... iraultza betean ez bada, iraultza nahian hazitako *Errautsakeko* belaunaldi horrek agian bere buruari trufa eginez baino ezin du bere aburua serio hartu, baina ekintzen

bidez mintzatzeko gaitasunik badu oraindik. Garaian garaikoa, izan ere belaunaldi bakoitzak bere moduak topatu behar baititu. Hori bai, *Errautsak* oholtzan harrapatzeko adi egin beharko zaio so egutegiari: azaroan emanaldi ugari eskainiko dute, oster bolada batez desagertzeko. Otsailean bueltatzeko asmoz, ez baitira agenda errazekoak. Oraingo, pertsonaiekin batera ostatu, kanposantu, plaza eta frontoietan gaua zeharkatzeko hitzorduak topatuko dituzue hemen: www.errautsak.com.

dizionalak, eta bestetik Kortatu, Hertzainak, Itoiz, La Polla... haiek kantatzean guztioi etortzen zaizkigu oroitzapenak”.

Teatro moduak

Estetika eta lengoaia propioen bidean urteetako lana egin duen aktore taldea zuzendu du Ximun Fuchsek. Lipusek eta Gaztañagak Antzerkiola Imaginarioarekin besteak beste, *Babiloniako Loreak* antzezlan taularatu zuten duela urtebete eskas. Redondok eta Gurrutxagak Dejabu panpina laborategiaren baitan hainbat ikuskizun sortu dute, azkenak *Gizona ez da txoria* eta *Azken portu*. Fuchs anaiak Antton Lukuren eskutik murgildu ziren antzerkigintzan, Ximunek zortzi urtez kolaboratu du zuzendari modura hark bultzatutako eskola antzerkietan, eta Manexek Lipusekin batera sortu zuen *Aulki butsa*. Ez dirudi erraza ibilbide pertsonal sakona duten aktoreak uztartzeak, baina Ximunek dioenez erabaki kontua da: “Arriskurik ez bada plazer gutxi aktorearentzat. Aitzinatzen ez den aktorea gibelera doa. Eta aitzinatze behar dira mundu berriak deskubritu. Hori egiten saiatzen gara. Zuzendaritza

“Euskal Herria da kasik Europako azken lekua non 70eko hamarkadako ideologia transmititu zaien gure belaunaldiari. Zer atxiki dugu horretatik?”

XIMUN FUCHS

Antzerkia ikusteko ohitura dugunok ohituegiak gaude agian, horretara ohitzerik baldin bada, euskara artifizialean taularatutako arima eskaseko lanak ikusten. *Errautsakek* hortik ateratzea lortuko du behar bada, baina Manexek ezin hobeto laburbiltzen du oinarrian dagoena: “Talde ezberdinak elkarrekin lan egitean bada Euskal Herrian euskaraz antzerkia egitearen gogo eta balorez beteriko asmo intelektual anitz, baina aldi berean, badugu ostatuko mozkor zale zenbaiten arteko konplizitate hori taula gainean, badugu plazer astapito bat elkarrekin lanean”. ■




Liburuak

KRITIKA

Vampiria. Aitor Arana.
lkasmina. 117 orrialde. 7,95 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Odol xurgatzaileak bogan

“BANPIROZALEEI” dago eskainita liburu hau, eta izenburuak berak adierazten duen moduan badu zerikusirik banpiroekin. Erdaraz gazteen artean gero eta indar handiagoa hartzen ari den tematika dugu hori, eta orain, badirudi euskarazko literaturara ere iristen ari dela –gogoan izan, esaterako, *Beste Gu* Mikel Zarate saria irabazi zuen obra ere–.

Aitor Aranak idatzitako nobela honek oso egitura berezia du; kapitulu laburretan banaturik dago eta, era berean, narratzaileak ere ugari dira. Irakurleak hainbat moduren bidez jasotzen du istorioaren haria: protagonista nagusiaren egunerokotik, Mikelen ordenagailu mezu laburretatik, kontakizuneko protagonisten inguruan hirugarren pertsonako narratzaile orojakilearen aldetik... Hots, ikuspuntu ugari eta protagonista asko batzen duen egitura bizi eta arina lortu du Aranak. Baina horrez gain istorioaren argumentuan asmatu duela esango nuke. Banpiroen istorioa da, banpiroa dela uste duen neska batena, baina hori baino gehiagora doa abentura edo misteriozko nobela honen argumentua, izan ere Valatek, banpiroen nagusiak, Joana neskatoa bereganatu nahi du banpiroen erabateko nagusitasuna eskuratzeko. Helburu hori lortzeko bidean, baina, Mikel aingerua eta honen nagusia tartekatuko dira nobelari amaiera lortua emanaz.

Vampiria nobelak 2010eko Baporea saria eskuratu zuen. Idazlan bizia eta entretenigarria da, arestian aipatu bezala; nahiko erraz eta ongi irakurtzen den lana, baina baita irakurlearen interesa harrapatzen duena ere, eta horretan badu zerikusia Aranaren estiloak: “Zain geratu naiz, bakarrik, euriari begira. Barruan egonezin handia daukadan arren, euriak lasaitu egiten nau, lurraren eta leihoaren kontra zarra-zarra jotzean egiten duen hots musikalak nire bihotz asaldaturaz laztantzea lortuko balu bezala” (8. orrialdea).

Atseginez irakurtzen den obra baten aurrean gaude, beraz. Irakurlea harrapa dezakeen argumentu interesgarri eta bitxiarekin; hala ere, batzuetan irakurleak zerbait galtzen ari dela senti dezake, ez duela haria erabat harrapatzen. Amaierak, ordea, airean geratutako ideia horiek lotzen ditu.

Poztekoa da, esandakoak esanda, Aitor Aranaren lan hau euskaraz argitaratua ikustea, are gehiago urtean ia-ia libururik plazaratzen ez duen argitaletxean publikatu delarik. Edozein modutan, Aranak epe nahiko laburrean sari hau hiru aldiz irabazi izanak kezka puntu bat sorrarazten dit. Ez al dago idazle gehiago? Idazleek ba al dute deialdiaren berri? Baina uste dut kezka hauek –eta beste batzuk– euskal literatura sari gehiagotara ere zabaldu beharko genituzkeela. ■

Miren Agur Meaberen poema liburu berria

Hamar urte joan dira Miren Agur Meabek azken poema liburuak publikatu zuenetik. *Azalaren kodearen* ostean haur eta gazte literaturan ibilbide sendoa egin du Meabek, baina orain hitz neurtura itzultzea erabaki du. *Bitsa eskuetan* hiru zatitan banatuta dago: lehenengoan poetak bere izateari buruzko errepasoa egin du; bigarrenan, amaren gaitzotzeaz eta heriotzaz hausnartu du; eta hirugarrenean harreman bati buruzko kontaketa jaso du. Meabek liburuak aurkeztean esan zuenez, adierazpen batasuna dago bere bizipenen eta testuen artean. Harreman horretaz jardungo du, besteak beste, datorren asteko ARGIAN publikatuko den elkarrizketan. ■



Bitsa eskuetan.
Miren Agur Meabe.
Susa.
90 orrialde.
13,50 euro.

‘Idatz & Mintz’-en 50. zenbakia

Ez baitira egunero 50ak betetzen, zenbaki berezia prestatu dute Labayru ikastegiko literatura sailekoek azkeneko *Idatz & Mintz* aldizkarirako. 1981ean ikusi zuen argia lehen zenbakiak, baina horren aurretik ere ibilbide luzeko egitasmoa zen. Urte hauetan egindako lanak, aldizkariak gain plazaratu dituzten liburuak... Horien berri izango duzu ale honi esker. Eta orain artekoaren errepasoarekin batera, kolaboratzaile ugariaren testuak dakartza aldizkariak. Parte hartu dute, besteak beste, Iratxe Ormatzak, Bingen Zupiriak, Amaia Iturbidek, Bene Markidak, Julen Arriolabengoak, Jon Arretzek, Miren Ibarluzeak, Piarres Xarritonek... Beste 50 ere baietz bete! ■



Idatz & Mintz.
Batzuen artean.
Labayru.
118 orrialde.
5,70 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Noa.
Esne Beltza.
Baga Biga.
Iraupena: 53'26".
11 euro.

Iturri ugaritatik edan eta partekatu

HERNANI INGURUAN sortutako talde hau nekaezina da. Lehenengo diskoarekin mestizaia edo mundu musika ikuspegia lantzen buru-belarri hasi ziren; *Esne Zopak* proiektuarekin trikitiaren tradizioa arakatu zuten; eta hirugarren lan honekin nazioarteko kultura, kolore eta doinu-truke zenbaitu ezina egin dute. Afrikako, Europa Ekialdeko eta Asiako musikari askorekin egindako *barremanaren* bitartez, gai izan dira reggae, ska, hip-hop, ragga-

muffin, country, rock, elektronika, dub, cumbia eta bestelako estiloak lantzeko, horien guztien testuinguruetan erabat barneratuta, mimo eta meritu handiz. Eta bitxikeria moduan, *Nafar erreinua* bertsio arabiarra eta *Rocokoko-fader* patchanka, besteak beste. 2011n munduan are eta gehiago bidaiatzeko asmoa dute; ea ba oraingoan zer ekaritzen diguten!

www.myspace.com/esnebeltza

Xabi Solano - Esne Beltza

«Gure kontzertuetan adin nahasketa ikusteak asko betetzen gaitu»

Zer "pasaporte" behar da hainbeste herritako problematika jasotzeko?

Bidaiatzea eta hizkuntza zapalduak dituztenen berri jakin nahi izatea. Batzuetan espresuki grabatzera jo dugu, beste batzuetan kontzertuak egitera... Diskoak ahots eta kolore ugari ditu. Ahalegindu gara kanpora jo dugunean hangoa ezagutzen eta hangoek gurea ezagut zezaten. Lortu dugulakoan nago eta hori guretzat truke-sortze esperientzia ikaragarria da. Baina pasaporte hori 2011rako behar dugu, apirilean hasita kanpora asko jo behar dugu eta.

Udan zuzenean gehientsuen aritu den taldea zarete. Nola bizi izan duzue?

Aurten 70 kontzertu egin ditugu, eta jada ezetz esaten gabilta. Esne Beltza martxan jarri genuenetik kristoren booma izan da, harrituta gaude. Lehenengo lanarekin jende gaztea

etortzen hasi zen; *Esne Zopakekin* jende edadetua ere batzen hasi zen; eta *Noa*rekin baita oso gazetxoak ere. Egia esan, adin nahasketa hain handia ikusteak asko pozten gaitu.

Ez dut gogoan halako kutsu jamai-karrik izan duen Kilometroak-eko kantarik...

[Barre egin du]. Egia da. Oso argi genuen alaia eta mugiaraziko zuena

izan behar zuela eta guk oso gustuko dugu ska-roots ildoak.

Kilometroak, Udalbiltza, Donostiako Piratak eta beste hainbat herri-ekimenetako kantak idatzi berri dituzue. Nekaezinak zarete?

Baita Gazteherriarena ere. Hala suertatu da. Gugana jo dute eta neka-neka eginda geunden, baina guk ezin dugu ezetz esan, ekimen horietan sinisten dugulako. Are gehiago, kanta horietako bakoitzarekin oso harro gaude.

Nafar erreinuaren bertsioa oso berezia da. Nola bururatu zitzaizun?

Esne Zopak lanerako egin nuen, baina DVDan dator, kredituetan, eta berreskuratze eskatu zidaten. Aitarren eta amaren etxea esne-saltzaileen lanbidearekin lotzen dut, galtzearen daudelako. Beirut taldearen abesti baten tronpetaren melodian oinarritu nintzen. ■

GALDER IZAGIRRE



Ezpalak

JON TORNER

Berri Txarrak taldearen bilduma

BERRI TXARRAK Lekunberriko hirukotearen 22 kanta biltzen dituen diskoa kaleratu du GOR diskoetxeak, *Denak ez du balio - Singles 1997-2007* izenburupean. Jarraitzaileen esku utzi zuten bildumako kantak aukeratzeara eta 400 bat boto jaso dituzte webgunean. Besteak beste, honako abestiak hautatu dituzte zaleek: *Oihu*, *Denak ez du balio*, *Oreka*, *Isiltzen banaiz*, *Bisai berriak*, *Ez dut nahi*, *Min hau*, *Kanta goibelak*, *Jaio musika.bil*, *Ez*, *Nortasuna eraikitzen*, *Zertarako amestu edota* *Izena, izana, ezina*.

Antzerkizale Eguna egingo da hilaren 27an Villabonan

VILLABONAN (Gipuzkoa) egingo da Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak (EHAZE) antolatutako I. Antzerkizale Eguna, hilaren 27an. Hauxe da egitaraua: 11:00. Hasiera ekitaldia Erreboteko Plazan. 11:30. Porrotx eta Marimototsekin kalejira. Jarraian Poxpolo ta konpainia. 13:15. Kale animazioa Txerriki, Alproja, Kukuka, Labea eta abarrekin. 14:30. Bazkari herrikoia. 16:30. Haurrentzat txokolatea eta buruhandiak. 17:30. Antzerki pieza motzak: Ixabel Agirresarobe eta Mikel Laskurain, Hirualanbrikak... 20:00. I. Antzerkizale saria Gurea antzokian: Oinkari dantza taldea, Eneritz Artetxe eta Eñaut Gantxegi, Kontxu Odriozola eta beste hainbaten parte hartzearekin. Jarraian, Edurne Agirrezabalaren *Sarean Zintzilikatua*. 23:30. Dantzaldia DJ Bullen erritmora Gaztetxean.

Ama Say taldeko

kideak, hamabost urteko etenaldiaren ostean, duela bi urte berriro hasi ziren zuzenekoekin. Orain disko berria plazaratu dute: *Ren fan* (Bonberenea). Gasteizko Jimmy Jazz aretoan aurkeztuko dute abenduaren 18an. 2011ko urtarrilaren 29an Durangoko Plateruenan izango dira, otsailaren 10ean Bilboko Kafe Antzokian eta martxoaren 26an Tolosako Bonberenean.



Théâtre de Chimères

Miarritzeko antzerki taldeak *Oncle Vania* / *Osaba Vania* azken lana estreinatu zuen pasa den astean Baionan. Anton Txekhov idazleak 1897an kaleraturiko obran oinarritzen da eta euskara eta frantsesa nahasten ditu. Bazterreko pantaila batean, itzulpena irakurri ahal izango dute ikusleek (frantsesez ari direnean euskarara, eta euskaraz ari direnean frantsesera). Jean-Marie-Broucaret taula zuzendariak adierazi duenez, bi hizkuntza erabilita gaur egungo errealitatea islatu nahi izan dute. Abenduaren 4an Luhuson (Lapurdi) eskainiko dute.

Musikene

goi mailako musika eskolako hiru irakaslek jazz musikari buruzko liburu bana plazaratu dute: *Jazz musikaren historia I* (Patricio Goialde), *Bebop-a, jazzaren hizkuntza* (Joaquin Chacon) eta *Charlie Parker. Mintzaira eta inprobisazio-teknikak* (Gonzalo Tejada).



blog.mugglebar.com

● **Ander Iturriotz Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria kexu agertu da Berrian, Jaurlaritzak diru-laguntzak murriztu dizkielako:** «Krisiak justifika dezakeena baino gehiago murriztu dizkigute diru laguntzak. Gainera, badakigu beste leku batzuetan, krisia egon arren, nahiko erraz eta nahiko arin mugitu dela dirua. Frogatzeko datu gehiago behar genituzke, baina uste dut euskal kulturak gobernu honen partetik jasaten duen gutxiespenaren ondorio ere badirela, neurri handi batean, murrizketa horiek. Guri laguntzak murriztearekin batera, erdal kultura bultzatzen ari da Jaurlaritza, eta erdal kultura esaten dudanean lehen ez zegoen erdal kultura esan nahi du».

● **Gustav Henningsen folklorista eta historialari daniarrak sorginkeriaz hitz egin du Euskonews & Media agerkari digitalean:** «Iruñeko apezpikuak, Antonio Venegas de Figueroasek, adierazi zuen bezala, sorgin-elkarte sekretuak erabat ezezagunak ziren euskaldunen artean, jazarpena hedatu zen arte. Apezpikua- ren hitzetan, 1609an iritsi zitzairen sorgin-elkarteei buruzko lehen berria, Pierre de Lancre epaileak Lapurdiko laurogei azti eta sorgin baino gehiagori heriotza-zigorra ezarri zienean. Han, izan ere, sorgin-erokeria bi urte lehenago hasi zen errotzen. 1609an, beraz, gaiak muga zeharkatu eta Inkisizioaren arreta piztu zuen».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Saturrarango tragedia oroitzeko itsasargi luzea

Izarren argia. Zuzendaria: Mikel Rueda. Aktoreak: Barbara Goenaga, Klara Badiola. Euskal Herria. 90 minutu.

MEMORIA HISTORIKOEN auziak legetxe, berant heldu naiz abar hauek galtzarbean hartuta. Filma Zinemaldian estreinatu baitzen eta ni baino lankide bixkorragoek eman dute honen berri ARGIA.COM-en dagoeneko.

Izarren argia irismen luzeko filma delakoan nago baina! Merezi duela goratik aipatzeak, horra. Merezi dute frankismo ankerreko biktimek, eta areago –hala posible balitz– Saturrarango presondegiko biktimak emakumeak eta euren seme-alabak izaki.

Merezi du historiako tragediak oroitzeak, berriz ere errepika ez daitezen. Baina, oraingoan merezi duena Mikel Rueda zinegilearen filma da. Duina delako. Gogoratzeak merezi du, baina gogoa pizten duena lan duina –eta argia– denean, memoriak eskertzen du.

Euskaraz –film batean– inoiz ikusitako interpretazio onenak iruditu zitzaizkidan emakume preso eta moja borroeroenak. Gizonenak ere bai, baina oraingo-

an emakumeak dira protagonista.

Behingoz, euskararen tratamendu egoikiari esker, hizkuntza ez zen traba izan nire gogoan.

Omen, diotenez, lana artea bada, ezin zara pertsona bera izan berau “dastatu” aurretik eta ostean.

Horrela atera ginen aretotik filma elkarrekin ikusi genuen hiru lagunok:

–Bikaina– esan zuen batek.

–Erritmoa hobetu liteke –beste batek.

–Protagonista nagusiaren semeak, Raulek, bizkar eman diezaioke bere amari?– hirugarrenak.

Eztabaida piztu zen.

Eztabaida ona da memoria lantzeko. Eztabaida ona da lana eta artea hobetzeko. Mikel Ruedak langa oso goian ipini du, izarren argiaren mailan ipini ere.

Lasai tokayo, unibertsoa infinitua duk-eta! ■



2. FINITURRA

azaroaren 28an,
AMOREBIETA-ETXANOKO
ZELAIETA ZENTROAN
17:30ean

IRATXE IBARRA
ARKAITZ ESTIBALLES
MIREN AMURIZA
ARRATE ILLARO
PEIO ORMAZABAL
ENKO ABASOLO

Gai-emilea:
BERNAR MANDALUNIZ

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPALKETA 2010


Bizkaiko
BFA DFB
bbk

LAGUNTZAILEA **argia**

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Aitorlekuan

Turista estatubatuarrak arin eta urduri antzera igaro da Tuterako katedralaren ate nagusian zehar. Ezker-eskuin begiratu eta, zuzen-zunenean eta korrika txikian aitorleku batera sartu da.

Inguruko zalapartarekin eta zirkoetako petomanoen pareko hots bat entzunda, barruan erdi lotan zegoen apaiza esna-



EMIJPR-CC BY SA

tu egin da. Eta pentsatzeko denborarik ere gabe, di-da, erantzun automatikoa irten zaio:

– Agur Maria, sortzez garbia! Erradazu zerk ekarri zaituen hona, seme!

Eta turistak, ahots dardaratiaz:

– Aizu! Barkatu baina, alde horretan ba al dago paperik?

Soluzioa

F	O	S	I	K	A	R	L	A	A
L	M	Z	A	H	A	R	L	A	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	P	L	A	S	D	O	R	A	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A
M	J	O	L	A	S	D	O	R	A

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gure gorotzek ez dute berotegi efektua areagotzen

ALMERIAKO UNIBERTSITATEKO (Espainia) ikerlari talde batek gizakiok elikatzeagatik sortzen dugun karbono dioxido kantitatea neurtu du. Azterketa Espainiako biztanleen datuekin egin dute, eta *The International Journal of Life Cycle Assessment* aldizkarian argitaratu. Batez beste, pertsona bakoitzak 881 kilo elikagai kontsumitzen du urtean, eta epe berean bi tona karbono dioxido emititzen du.

Kalkulu horiek egin ahal izateko jakien produkzioarako nekazaritza eta azienden langintzak, industri transformazioa, prestaketa eta sukalde-lanak, hondakin solidoen trataera eta gizakien gorotz kantitatea aztertu dituzte. Azken horri buruz zera diote ikerlariak: "Gizakiaren kakek eragin zuzena dute ibaien eta itsasoen kutsaduran, baina ez berotegi efektuan, sortzen den karbonoa fotosintesiaren bidez orekatzen baita".



WWW.FLOW4THEWORLD.COM

Amazonia, euri sortzailea

ALEMANIAKO MAINZ HIRIAN dagoen Max Planck Kimika Institutuko ikerlariak Amazoniak bere euria sortzen duela frogatu dute. Nola? Eurite sasoian, Amazoniako oihanak askatutako partikulek lainoetako ura kondensatzea eragiten dute, euria sortuz.

Amazoniaren gaineko airea oso garbia da eta bertan topa daitezkeen partikulak, neurri handi batean behintzat, oihanak askatutakoak dira. Partikula horien %80ak mikrometroa baino diametro txikiagoa du eta polenez, esporez eta beste material biologikoez osatzen da; gainerako %20a Afrikatik eta Atlantikoko hainbat lekutatik garraiatutako gatzak eta mineralak dira.

Azterketa horren bidez munduko hainbat lekutako euriaren logika hobeto ulertu nahi dute, batez ere euri eskasiaren arazoari aurre egin ahal izateko.



ELPOLVORIN.OVER-BLOG.ES

Itsasoetako birusen garrantzia

Orain gutxi arte kontuan hartu ez diren arren, itsasoetan dauden birusak, planetako izaki bizidun ugariak izateaz gain, garrantzi itzela dute elikadura-kateetan, arrantza-baliabideetan eta kliman.
<http://ttiki.com/19087> (Gaztelaniaz)

HIESaren aurkako borrokan aurrerapausoak

GIB birusak kutsatuta dauden 300 pertsonetatik batek ez du HIESa garatzen, bere sistema immunitarioak gaixotasunari aurre egiteko ahalmena duelako. Pertsona horien sistema immunitarioaren ezaugarriak aztergai dira aspaldidanik, eta aurrerapenak eten gabe lortzen dira.
<http://ttiki.com/19088> (Frantsesez)

Teknika holografiko berriak

Ikerlari estatubatuar talde batek bideo holografikoak transmititzea eta betaurreko berezirik gabe hiru dimentsiotan ikustea lortu dute. Horretarako, besteak beste, pantaila berezia garatu dute, esparru askotan aplikazioak eduki ditzakeenak, bideojokotatik hasi eta telemedikuntzara arte.
<http://ttiki.com/19089> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia

batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lilura estasi

MUSIKA DOTOREA EGITEN DA zurarekin, zurezko tresnekin. Baita txar askoa ere. Musika egiten du zurak. Ebanoa (*Diospyros* generokoak), kaobak (*Meliaceae* familiakoak), *Dalbergia* generoko zuhaitz jendea... Zur onenak ditugu musika tresnetan. Txistu beltzetan adibidez. Zailduz hezitako esku finduek leuntzen dute musika borobilduko duen zura. Ondo leuntzeko aukera ematen duen zura da onena instrumentuetarako. Zur hauek egur trinkoetatik datoz, uretara bota eta hondora joaten diren horietatik. Aipatutako *Dalbergia* generoko espezie batzuetako enborrek metro kuboko 1.250 kiloko pisua izan dezakete. Harrapazank! Urak berak baino %25 gehiago. Tokitan daude gure egur trinkoak, ale bakanen batzuk asko jota uraren 1.000 kilo/m³ paretsuko izan daitezkeen artea (*Quercus ilex*), ezpela (*Buxus sempervirens*), hagina (*Taxus baccata*), maaltza (*Pyrus* sp), artelatza (*Quercus suber*), gorostia (*Ilex aquifolium*)... eta musikagintzarako batik bat erabili izan dugun *Acer campestre* astigar arruntaren 600 inguru kiloak. Zur trinkoak beteagoak dira eta finago leuntzen dira, eta



Sasafraren (*Sassafras* sp) hostoak.

lanak amaituta, sagar-jotzaileek etxeko larrainean, sagarra jo eta txikitzeko erabiltzen zuten sumilekin hura zanpatzeko patsola joaz dolareko lanen dolareak kirikoketaz eta kantuz goxatu eta dantzetan gozatzeraz ematen dira. Muztio gozoa eta lagunak gozo, elkarren liluran lotzen dira. Patsolaren haritzak (*Quercus* sp) sortutako estasia eta musika tresnetan erabiltzen hasi berria den Kanadako sasafra (*Sassafras* sp) zuhaitzaren egurrak sortutakoak, berdinak ote? Sasafratik lurrin gozoak sortzen dira eta mina kentzeko aproposa da. Bere olio da, estasia deitzen den drogaren oinarritzko MDMA (3,4-metilendioximetanfetamina) sortzeko gaia. Lilura estasi.

leunean, nonbait, musikaria musikari, musika hobeto ontzen da, bikainagoa. Kirikoketa jotzailearen bati galde-tu beharko diot, edo genero ugariagoa den bertsio modernoagoko txalapartariaren bati: dolareko patsolaren leunak musikaren borobilean zenbaterainoko garrantzia duen... Kirikoketa urte garai honetako estasiaren adierazle zaharrenetakoa dugu.

Dolareko sagardogintza

leunean, nonbait, musikaria musikari, musika hobeto ontzen da, bikainagoa. Kirikoketa jotzailearen bati galde-tu beharko diot, edo genero ugariagoa den bertsio modernoagoko txalapartariaren bati: dolareko patsolaren leunak musikaren borobilean zenbaterainoko garrantzia duen... Kirikoketa urte garai honetako estasiaren adierazle zaharrenetakoa dugu.

Ustel gozoa

Fruituen artean ezezagunenetakoa izango dugu mizpira, *Mespilus germanica*. Asiriarrak eta babiloniarrek ekoizten zuten eta handi dator, agidanean, ohitura. Ia fruitu guztiak bere espezieko edo gehienez ere bere generoko beste baten gainean txertatzen dira. Mizpira, aldiz, elorri zurriari (*Crataegus* spp.) txertatzen zaio. Bi generoen arteko txerto honek mizpirondoa nekez hazi eta etortzea dakar. Honexegatik, erdipurdi bizi delako oso emaila da, iraungo ote duenaren zalan-tzan badaezpada bera bezalakoak sortzeko hazi asko eman, fruitu asko, alegia. Batzuek izotzen ondoren biltzen dituzte, eta beste batzuek, geuk tarteko, usteltzen hasi denean jaten; fruituaren azido malikoa hartzitu eta alkohola bihurtzen hasi eta azukreak gora egin duenean.

Gaur bildu ditut lehenak eta hemendik aurrera eskuera izango ditugu. Gozatu.



JAKOBA ERREKONDO

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Zergatik Nuremberg?

WWW.USHMM.ORG



WWW.TRAVELPOD.COM



Ezkerrean, Nurembergen epaitutako ofizial alemaniarrek. Eskuinean, Nurembergeko justizia jauregia, gerra garaiko bonbardaketek ukitu ez zutena.

NUREMBERG, 1945EKO AZAROAREN 20A. Nazioarteko auzitegi batek 21 buruzagi alemaniarren aurkako prozesua abiatu zuen, naziek burututako gerra krimenak epaitzeko. Ia urtebetez luzatu ziren epaiketa horiek ondorio erabakigarriak izan zituzten nazioarteko komunitateak aurrerantzean estatu krimenetan izango zuen jarrera teorikoan (praktika beste kontu bat izan da). Baina akusatuak aulkian eseri baino lehen, aliatuek beren arteko hainbat desadostasun gainditu behar izan zituzten.

Churchill garbiketa azkarraren aldekoa zen: goi mailako ofizialak identifikatu eta gehienez sei orduko epean fusilatu. Hasieran Rooseveltek britainiarren proposamena onartu zuen, baina AEBetako gobernuko gainerako kideek ezezkoa eman zioten. Sobietarrek Hirugarren Reicharen izaera kriminala agerian utziko zuen epaiketa nahi zuten eta 1945eko apirillean Roosevelten ondorengo Harry Truman ere horren alde lerratu zen. Azkenik, maiatzean, britainiarrek

nazioarteko epaitegi militarra sortzea onartu zuten.

Auziaren arazo nagusietakoa nor epaitu eta zer kargu ezarri izan zen, epaiketak dudako oinarri legala baitzuen. Baina gerraren irabazleak beste eztabaida batean sartu ziren: non burutuko ziren epaiketak? Alemania hainbat okupazio eremutan banatuta zegoen orduan eta bakoitzak berera ekarri nahi zuen auzia. Britainiarrek eta estatubatuarrek Leipzigen, Munichen edo Luxenburgon egin nahi zuten, baina sobietarrek Berlin proposatu zuten "hiriburu faxista" zela argudiatuz; Berlin sobietarren eremuan zegoen, noski. Lucius Clay militar estatubatuarrek Nuremberg proposatu zuen orduan, huraxe izan baitzen ekitaldi faxista jendetsuen kokagunea. Gainera, uste-kabea, justizia jauregia zutik zen oraindik hiri suntsituan eta atzean espetxea zeukan. Sobietarrek gogo txarrez onartu behar izan zuten kokapena. Eta, hala, Bigarren Mundu Gerrari kitoa eta Gerra Hotzari ongietorria eman zioten.

Arrastoak

Krisialdiak gertatu eta gero aurreikusten dira

1873TIK 2008RA munduan izandako krisialdi ekonomiko nagusiak bildu ditu Carlos Marichal historialariak *Nueva historia de las grandes crisis financieras* izenburuko lanean (eskuinean, liburuaren azaleko argazkia). Ikerketaren tesi nagusia krisialdiak aldian-aldian errepikatzen direla eta, beraz, aurreikus daitezkeela

da. Krisien aurreko oparoaldietan, ordea, inork ez du horrelakorik gogoan eta atzeraldia iragartzen dutenei ez zaie jaramonik egiten; esaterako, Paul Krugmanek 1999an eman zuen egungo deskalabruaren abisua. Hala, krisialdi hau gainditzean, ziurrenik memoria lausotu egingo zaigu berriro.



Mugikortasuna

Oinezko izatea benetan eskubidea izan dadin

Bizkaiko Ekologistak Martxan taldeak ia burututa dauka Bilborako peatonalizazio proposamena, hiriaren Plan Orokorrean txertatzeko esperantzarekin. Datu zaharretatik abiatuta, ondorio berriak atera dituzte; gaur egun indarrean dauden irizpideak albora utzi, eta oinez ibiltzea hiri barruan mugitzeko benetako garraio alternatiboa izan dadin nahi dute.

UNAI BREA
Argazkiak: Iñigo Azkona

BILBON mugikortasunak sortzen dituen ingurumen-arazoek eta desberdintasun sozialek arau berberei jarraitzen diete. Hori da Bizkaiko Ekologistak Martxaneko garraio sailak egindako proposamenaren *–Mugikortasuna, desberdintasun sozialak eta ingurumena–* oinarri teorikoa. Horren arabera, hiritarrek beren mugikortasun beharrak nola asetzen dituzten ulertzeko hiru aldagai hartu behar dira kontuan: errenta ekonomikoa,

generoa eta adina. Peatonalizazio politika berriei ekitea ez da mentalitate edo heziketa arazoa; mugikortasuna beste era batera antolatzeari da gakoa.

“Tradizionalki, egin izan diren garraioaren gaineko azterketetan gauza bi analizatu dira: zertarako mugitzen garen (lanerako, aisiarako, erosketetarako...), eta zer garraio bide erabiltzen dugun mugitzeko behar hori asetzeko”, azaltzen dute txostenaren egileek. Ikus-

puntu horrek gabezia bi dauzka haien ustetan: batetik, ez ditu kontuan hartzen “ofizialki” produktiboak ez diren baina behar espezifikoak dauzkaten sektoreak (edadeko jendea, etxeko andreak, langabetuak...), eta bestetik, kanpoan uzten ditu batere mugitzen ez direnak edo oso lekualdatze laburrak egiten dituztenak. Azken horiek biztanleriaren zati esanguratsua dira: Bilbon, %19. Gehienak 55 urtetik gorako emakumeak dira, ordaindu-



A-8aren beste muturrean du Bilbok eredu bat

Harekin solasean ginela, Enrique Antolinek behin baino gehiagotan esan digu Donostia hiri eredugarria dela peatonalizazio kontuetan.



Izan ere, Bizkaiko Ekologistak Martxanek Gipuzkoako hiriburuko adituengana jo du xehetasunen bila, beren proposamena guztiz burutze aldera.

Eredugarri bakarrik ez, Euskal Herrian aitzindaria izan zen Donostia oinezkoentzako guneak sortzen. 80ko hamarkadako amaieran hasi ziren lehenbiziko planak egiten, eta 90eko hamarkadaren erdian hirian hainbat aldaketa gauzatzen hasi ziren, motordun ibilgailu pribatuen presentzia mugatzeko helburuz. Aldi berean, bestelako garraio bideak sustatu nahi zituzten. Irakur bedi oinez ibiltzea eta txirrindua. "Hiri barruko

garraioaren ardatza oinezkoa izatea zen helburua", adierazi digu Manu Gonzalezek, Kristina Enea Fundazioko Jasangarritasunaren Behatokiko zuzendari teknikoak. Hain zuzen ere, une honetan oinezkoei buruzko jardunaldiak egiten ari dira Kristina Enean, zein eta *Oinezkoa* goiburuean. Abenduaren 9ra bitartean, oinezkoen eskubideak aldarrikatzeko egindako afixen erakusketa izango da ikusgai, eta nazioarteko hainbat adituk hitzaldiak emango dituzte peatonalizazioari buruz. Dagoeneko egin diren hitzaldietako batzuk www.cristinaenea.org webgunean dituzue entzungai.

tako lanposturik gabekoak eta, kasu askotan, mugikortasun arazo handiak dauzkatenak euren auzoen egitura dela eta. Garraioari dago-kionez, "ikusezinen kolektiboa" osatzen dute.

Zelan mugitzen dira bilbotarrak?

Bilbon, hiri barruan egiten diren lekualdatzeen %58 inguru oinez egiten dira. Erraz igartzen da zein den oinezkoaren perfila: emakumea, gaztea edo zaharra, errenta txikikoa. Autoaren erabilera, berriz, "bazterrekoa da", Ekologistak

Martxaneko Enrique Antolinen ustez. Besterik da, noski, hiritik irteteko edo bertara sartzeko kotxez egiten diren bidaiak.

Nolanahi ere, eta lanegun batean Abando edo Indautxu auzoetan ibili den edonork kontrakoa pentsatuko duen arren, Antolinen iritziz ezin daiteke esan Bilbo autoen menpeko hiria denik. Izan ere, hirira sartzeko den auto kopurua gutxitu egin da azken urteotan, baina ez garraio politika egoki bati esker, guztiz aurkakoa baizik: biztanleriaren zati handi bat hiriburu-

tik inguruko herrietara joan da, kasu askotan garraio publiko eskasa duten dentsitate baxuko auzu-neetara, eta aisialdi-gune nagusiak ere periferian kokatu dira. Merkataritza zentro erraldoiek auto pribatuen joan-etorri kopuru eskerga eragiten dute, baina Bilbora sartu beharrean, hura inguratzen dute autook.

Peatonalizazioa merkataritzaren mesederako

Horrek ez du esan nahi Bilbo pagotxa denik oinezkoentzat.



Ezkerrean, Ledesma kalea, Abando auzoan. Bilboko peatonalizazioaren ikur bihurtu da batez ere ostalaritzari emandako karrika ezagun hau. Lerro hauen azpian, jesarlekuak Bide Nagusian. Oinezkoentzako sarea halako ekipamenduez hornitzea funtsekoztat jotzen du Ekologistak Martxanek.



Sortu dira haientzat espazioak, egia, baina ikuspegi jakin baten arabera, Antolinek esplikatu digunez: “Arazo nagusia da, gezurra badirudi ere, oraindik finkatzeke dagoela garraioari buruzko teori-zazioa. Ez daukagu oso argi zer ote den ‘garraiatze’ delako hori. Beraz, zer oinarri teoriko eman behar diogu peatonalizazioari? 70eko hamarkadan, Italian eta Alemanian batik bat, peatonaliza-zio prozesuak hasi zirenean, kon-zeptuak oso ezaugarri zehatzak zituen: espazio atseginak sortzea zen helburua, merkataritzari eta aisiari lotuta gehienbat. Hori da guri iritsi zaiguna”.

Sarea behar du oinezkoak

Bilbon dezente peatonalizatu da, baina aipatu berri ditugun irizpide horien arabera. Sekula ez da pentsatu, dio Antolinek, peatonaliza-zioa tresna bat izan behar dela hiri barruan mugitzea errazteko. Eta hori da Ekologistak Martxanen proposamenaren xedea. “Oinez ibiltzea bada mugitzeko gehien era-biltzen den bitartekoa, antola deza-gun Bilbo horren arabera. Hala, ‘oinezkoentzako espazioa’ kon-zeptutik salto egin dugu ‘oinezko-entzako sarea’ kontzeptura”.

Antolinek aipatutako saltoak hiria ulertzeko beste modu bat dakar. “Bestelako ibilbideak behar dira, ezaugarri jakinak dauzkate-nak: igogailuak, aldapak arintzeko bestelako gailuak, garraiobide osa-garriak, intermodalitatea, jesarle-kuak...”. Elkarrekin topo egiteko gune hutsetik harago doan zerbait, azken batean. “Hortxe kokatu nahi dugu eztabaida”, dio Ekologistak Martxanekoak; “bada datu esangu-ratsu bat: Bilbon peatonalizatu diren espazioen %41 Abandon dago”. Erdigune aberatsean, hor-taz. Turistak erakarri nahi dituen Bilbo berri horretarako gune ego-kiak dira, ez bairik gabe. Dendak eta tabernak erruz daude Bilbok oinez-koentzat “gorde” dituen kale horie-tan.

Hala eta guztiz ere, Ekologistak Martxanek proposatzen duen oinezkoentzako sarea hiriko maparen gainean behatuta, berehala ikusten da dentsitate handieneko

guneak erdialdean daudela, hain justu. Honela azaldu digu Enrique Antolinek: “Hirian egiten diren oinezko desplazamenduak aztertuta, ohartu ginen auzoetatik erdi-gunera –edo alderantziz– zihoazenak direla nagusi; periferiako auzoen arteko joan-etorri gutxi dago. Hala, honezkero existitzen diren egituretatik abiatuta hasi ginen proposamena gorpuz-ten”. Modu agian sinple samarrean esanda, aurrez sortutako “espazioak” elka-rrekin lotu eta “sarea” sortu dute.

Plan Orokorrean txertatzea, helburuetako bat

Hori guztia, momentuz, teo-rian egin dute, maparen gai-nean. Urte bi daramate lanean eta laster argitaratuko dute proposamenaren ber-tzio berritua, osatuagoa. Bitartean, den-dena teoria hutsalean gera ez dadin saia-tzen ari dira, hainbat eragile-rekin bilduz.

EAEko Lurzoruaren Legeak dio biztanle kopuru jakin batetik gorako hirietan Plangintza Kontseilu bat egon behar dela. Horretan, alderdi politikoez gain, gizarte mugimenduak ere hartzen du parte, eta Ekolo-gistak Martxan Bilbokoan dago. Organoak ez dauka erabakitze ahalmenik, aholkularitza-organo hutsa da, baina eragina izaten du Plan Orokorra xedatzen duen bulegoarekin. Alde horretatik, itxaropena dau-kate proposamena, edo zati-ren bat behintzat, laster egi-tekoa den Plan Orokorren Berrikuspenean txertatzeko.

Esku batekin hori egiten ari dira, eta bestearekin alder-di politikoekin biltzen, dato-zen udal hauteskundeei begi-ra euren programetan jaso dezaten proposamena. Mugi-kortasunaz ari gara; ez die-zaiela inork leporatu geld-i egon izana. ■

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA
© 943 423 424 · Fax: 943 424 424
urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com



Prensa idatzia

‘Ara’, katalanezko egunkari berria

Mugimenduak daude prentsa katalanean. Avui erosi zuen orain urtebete *El Punt* kaleratzen duen enpresak. *La Vanguardia* katalanez aterako omen da datorren otsailetik aurrera.

Aurretik baina, azaroaren 28an, Ara egunkari berria argitaratzen hasiko dira.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Oriol Clavera

AZAROAREN 28A egun seinalatua izango da prentsa katalanarentzat: Parlamenturako hauteskundeak izango dira, batetik. Bartzelona eta Madrilén arteko futbol partida bezpera da, bestetik. Bi-biak lehen lerroko gertakariak dira hango para-jeetan —akaso bigarrenaren lehena bainoago—. Baina horiengatik baino, egun seinalatua izango da katalanez osoki idatzitako egunkari berriak ibilbidea hasiko duelako. *Ara* (“Orain”) jarri diote izena. Urte asko dira, hogeita hamarretik gora, egunkari katalanik egonkortzen ez dela.

Ezen *Avui*ren sorreraz gero, 76an, eta *El Punt*ena hiru urte geroago, *El Periódico* kazetaren katalanezko edizioa baino ez baita sortu, berau ere orain urte tako bat, hamahiru bai. Hori da orain *Ara* egunkaria kaleratzeko motiboetarik bat, Carles Capdevila zuzendariaren hitzetan, eskaintza berrien sorrera eza: “Eta mundu berria ari da jaio-tzen, herrialde berria, eta herrialde hori azaltzen lagunduko duen egunkari berria behar dugu”. Mundua aldatzen ari da beraz (noiz ez?) eta Katalunia, Espainiarekin, Europarekin erlazionatzeko bide berriak bilatzen: “Irtenbideak aurkitu behar ditugu sortzen ari den kontakizun nazionala osatzeko”.

Krisia da beste zio bat. Krisi garaian omen daude paperezko agerkariak, egungo egunkari eredu agortuta, egoera ezker askoa dute han eta hemen. Berrasmatu beharra



Azaroaren 28an aterako da *Araren* lehenengo zenbakia, 11.000 aleko tiradarekin. Erredakzioan jo eta su ari dira azken ukituekin.

dute beren burua berripaperek. Apustuak, hargatik eta itxura batean, arriskutsua iduri du. Baina aukera ere bada Capdevilaren hitzetan, baikortasun eta fede ekintza egingo dutela arropostu digu, aurre-rapausoa, garaio horretarako direla. Gainera, “abantaila dugu egun merkatuan daudenekin, ez dugu egoeraren aurrean erreakzionatu behar, zerotik jaioko gara, gauza batzuk jakinda. Nahiz eta ez jakin ondo nora goazen, badakigu joan goazela”. Teknologia berrien kasuan, adibidez.

Hirukoitza da erronka, beraz: aipatu dugu Kataluniako soziopolitika, aipatu krisia. Aipatu behar ditu-

gu hurrena teknologia berriak, sare sozialak. Izugarri ari omen dira aldatzen komunikabideak horiei esker edo horien erruz: “Kazetaritza gartzten ari da eta, aldaketen jakitun, plataforma anitzeko egunkari gisa sortuko gara. Ez web gunea duen egunkari soil: sukalde digitala izango da gurea, paperezko bertsioa egingo dugu, digitala, iPad edota segapotoan irakurtzekoa, telebista, irrati kanalak izango ditugu, newsletter eta alerta bidezko sms-ak”. Irakurle komunitatea sortzeko asmoa agertu dute bestalde, “eta dauden leku guztietan bilatuko ditugu irakurleak. Komunitate jakin batzuk zaindu nahi ditugu, gurasoak, irakasleak,

herri kulturen dabilizanak, oinarritzeko kiroletan”.

Izen ezagunak

Kataluniako komunikabideen panoraman izen sonatu askoak dira *Ara*ko kideak: Antoni Bassas (urte luzeetan Catalunya Ràdioko ahotsa, orain TV3ek Washingtonen duen korrespondentsala), Albert Om (TV3eko aurpegi ezagunenetakoa), Toni Soler (*Polònia* telebista saio satirikoaren zuzendaria), Xavier Bosch (besteak beste, *Avui*ko zuzendari ohia). Zuzendaria bera, Carles Capdevila, luze ibilia da irratian, telebistan, prentsa idatzian, herrialdeko komunikabide garrantzitsuetan.

Kolaboratzaileen artean ere osatu dute zerrenda: Josep Ramoneda, Salvador Cardús, Carme Riera, Albert Sánchez Piñol. *International Herald Tribune* eta *The New York Times* egunkariekin lortutako akordioari esker gainera, Umberto Eco edota Mikhail Gorbaxov izango dituzte tarteka bertako orrialdeetan. Izen horiei, ahantzi gabe, gehitu behar zaie diruaren gehien-goia jarri dutenena: enpresa argitaratzailea Cultura 03 izango da (*Ara* Llibres editorialaren jabea, *Sàpiens*, *Descobrir Catalunya* eta bestelako publikazioen arduraduna). Bai eta Kataluniako enpresari aberatsenetako batzuk ere, Artur Carulla (Agrolimen taldeko presidentea) eta Ferran Rodés (Havas taldeko zuzendari nagusia) kasurako.

Orain arte hitz egindakoak ikusita, berehalakoan iritsi zaizkio proiektuari kritikak, espainiar eskuin uzkurereko komunikabideetatik bereziki: Montillak milioi bat euro oparitu dizkiela, egunkari separatista izango dela –kritika edo ia irain moduan– eta abar. Beste nonbait dute burua baina, egunkariaren sustatzaileek. “Korrontearen aurka ari gara neurri batean, badaikit”, diosku Capdevilak, “eta gisa honetako proiektu batek beti jasoko ditu kritikak. Lasai gaude, badugu web gunea, ara.cat izeneko, eta bertan daude jaso ditugun dirulaguntzak, egunkariaren praktika profesionalerako kodea”. Oso kontzentratuak daude egunkaria aurre-



Carles Capdevila *Ara*ko zuzendaria probako zenbakietako bat eskutan duela.

ra ateratzen, “oraintxe bertan sekulako ardura dugu gure bizkar, itxaropen handia sortu du egunkari berriak. Aurkezpen saio piloa egiten ari gara, harpidedun mordoa bildu zaigu egunkaria nolakoa den ikusi aurretik, 25.000 jarraitzailetik gora dugu Facebook orrian. Horiei denei tamainako erantzuna emateko lanean ari gara orain”.

Prentsaren egoera

Mugimenduak daudela bistan da prentsa katalanean. Hasteko, *Avui* erosi zuen orain urtebete *El Punt* argitaratzen duen enpresak, Hermes Comunicació izenekoak. Makal zebilen azken urteotan *Avui*, diruarekin arazoak, hainbat eskutatik pasa eta gutxi hobetu. Gauza bitxi xamarra gertatzen da orain: nahiz bata informazioa lokalak lantzen duen gehiago (*El Punt*), besteak nazionala (*Avui*), gero eta antzekotasun handiagoak dituzte, gero eta eskaintza berdina, berriak, produktua, gehigarriak. Egoera horrek definizio prozesuan sartu ditu bi egunkariak. Oficina de Justi-

ficación de la Difusión elkar-teak iaz egindako ikerketaren arabera, 36.000 aleko tirada du *Avui*ko. 30.000koa *El Punt*ek.

Badirudi bestalde, *La Vanguardia* berripapera katalanez argitaratuko dela datorren urteko otsailetik aitzina. Aurtengo udan David Gonzalez *Avui* egunkariko zuzendariorde ohia kontratatu zuten katalanezko edizioaren ebaluazio eta planifikazioaren ardura bere gain har zezan. Hainbat komunikabidek argitaratu dute gainera *Avui*tik kaleratutako langileetako batzuk hasiko direla lanean *Ara* egunkarian. Godó taldeak argitaratzen du *La Vanguardia* eta 235.000 alekoa du tirada. Horiei gehitu behar zaie Zeta taldearen *El Periódico* kazetak katalanezko edizioa argitaratzen duela 1997. urtetik, 181.000 aleko tiradarekin. Itzultzaile automatikoak egiten du katalanezko bertsioa, gaztelaniakotik itzuliz.

Capdevila lasai agertu zaigu beste behin, diplomatiko oso: “Mugimendu horiek ez dira gurean bakarrik gertatzen, mundu mailako fenomeno da. Leku askotan ari dira ageriak elkartzen, birmoldaketa behar duen sektorea da prentsa idatzia. Gainera zenbat eta produktu gehiago izan katalanez, hobeto, horrek esan nahi baitu katalanaren osasuna ona dela. Denentzat dago lekua gurea bezalako herrialdean”. Azaroaren 28an, beraz, *Ara* egunkari berria argitaratuko dute. Hasteko, 11.000 ale. Ikusiko dugu zer den, nolakoa, eta, beharbada, hemen kontatuko. ■



Rio Argia Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97 lua@luark.com

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egundetan
edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Deban hitzaldi zikloa

DEBAKO UDALAK eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean antolatu dute euskararen normalizazioaren inguruko hitzaldi zikloa. Joan den astean hasi ziren hitzaldiak Jon Sarasuarenarekin. Gaztelaniaz aritu zen aretxabaletarra *La ventana del euskera* izeneko hitzaldian. Aste honetatik aurrera hiru hitzaldi izango dira.

– Azaroak 19, 18:00: *XXI. mendeko Debako euskaldunak. Nolakoak?*

Julen Arexolaleiba.

– Azaroak 26, 20:30: *Debako kultur taldeak. Zer ematen diote herriari?*

Nekane Goikoetxea.

– Abenduak 3, 18:00: *Nola ateratzen da hizkuntza-armairutik*. Imanol Miner eta Arkaitz Miner.

Japoniar ideogramak

JAPONIAR IDEOGRAMAK Jon Goikoleak argitaratu berri duen liburua da. Goikolearen asmoa japoniera ikasteko metodo erabilterraza eskaintzea izan da. Liburuan, japonieraz erabiltzen diren kanji ideogramak euskarara itzuli ditu. Ikur horien ahoskera, esanahia eta ulertzeko eta memorizatzeko bideak ere eman ditu. Japoniar idazkerak hiru sistema erabiltzen ditu: hiragana, katakana eta kanji ideogramak. Ikasteko zailenak kanjiak dira eta horregatik euskaratu ditu Jon Goikoleak 6.000tik gora kanjieta-ko 2.140. Ez frantsesez ezta gaztelaniaz ere ez dago horrelako libururik.

BAHEA

Aizu! aldizkarian Zoe Bray antropologo eta margolariari egindako elkarrizketan esanak:

“Galdera: Zure bizitzan euskarak atek zabaldu al dizkizu?

Erantzuna: Bai, anitz. Hasieran euskara niretzat ikasi nuen. Baina banekien euskara jakin ondotik atek irekiko zitzaizkidala. Ni euskalduna naiz hizkuntzan mintzatzen, hori inportantea da. Zure hizkuntzan hitz egiten badut, hurbilago sentitzen gara elkarrengandik. Nire lanarendako biziki garrantzitsua da, zeren antropologo baten asmoa, beste jendearen ikuspuntua ulertzea baita. Orduan, lan hori ongi egiteko beste pertsonaren hizkuntza ulertu behar duzu.

Galdera: Koadro batean euskara margotu beharko bazenu, zer margotuko zenuke?

Erantzuna: Anitz koloreekin, zeren niretzat euskara bizirik dagoen hizkuntza da, biziki dinamikoa... moldatu egiten da, anitz gauza egin ahal duzu euskararekin. Beste hizkuntza batzuekin baino gehiago, beharbada. Uste dut euskara pinta-tzeko margoak abstraktua beharko lukeela izan”.

Petra Elser itzultzaile eta euskara irakasleak Berrian esanak: “Euskaraz bizi den gehiengoa klase ertainekoa da, edo ekonomikoki segurtasunean bizi den langile klasea (...) Aldiz, segurtasun ekonomikorik gabeko klase baztertuetan, lanerako adina duten pertsonen artean, hizkuntza nagusia gaztelania da, edo, etorkinen eraginez, munduko beste hainbat hizkuntza. Baina paradoxa bat gertatzen da: euskaldunok bizi dugun segurtasun ekonomiko eta oparotasun honek, ez du, hizkuntza mailan, jarraitzeko moduko adibide bat sortzen. Bi arrazoiengatik: bat, gure hiztun komunitatean sortzen den nortasun-irudi publikoa biktimarena eta bigarren mailako herritarrena delako; eta bi, euskararekin diru-sarrerara bat lortzeko oso maila baldintzatura iritsi behar delako”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**Deslokalizazio berriak?**

Enpresa asko krisia baliatzen ari dira, langile kopurua gogor murrizteko edo Euskal Herrian dituzten plantak ixteko, bereziki multinazionalak. Ondorio garbi eta larriak ditu: ehunka lanpostu deuseztaturik eta ehunka familia langabezia. Are larriagoa dena, lanpostu horietako asko langile gazteei dagokie, eta ia ezinezko izango dute lan merkatuan sartzea. Joan den astean hiru kasu gehiago egon dira: Alonsotegiko ThyseenKrupp, Bergarako Tavex eta Gasteizko Bialsa (lehengo BH). Lehenengoan 120 lanpostu kenduko dira, bigarrenengan 64 eta hirugarrenean 38.

Egoera horien atzean zer dagoen aztertu behar da. Enpresok benetan al dira egungo krisi ekonomikoaren biktima? Ala deslokalizazio prozesua da, kostu gutxiagorekin etekin handiagoak lortzeko? ThyseenKruppek egoera ekonomikoa aipatzen du eta dio murrizketak Alemaniako beste planta batzuei ere eragiten diela. Tavexek ere baditu beste planta batzuk munduan, hala nola Marokon eta Hego Amerikan, eta haietan ere “doikuntzak” egin dituela dio. Bialsak Txinan eta Portugalen ditu plantak, baina azkeneko emaitza eta fakturazioek ez dute hain neurri gogorrik aurreikusten. Dena den, beste enpresa batzuetan errepikatuko diren egoera horien aurrean, Administrazio publikoak desegite espedientea onartu edo atzera bota behar du, eta oso kontuan eduki beharko luke Euskal Herriko planta horien itxieraren atzean enpresa-deslokalizaziorik ezkutatzen ote den. Ez litzateke lehenengo aldia izango hemengo enpresak itxi eta beste latitude batzuetan, kostu gutxiagorekin, beste batzuk irekitzen dituztena.

Juan Mari Arregi

2011ko hauteskundeak, NaBai-ren azken helmuga

EZKER ABERTZALEAK proposame-na luzatu die Aralar eta EAri Nafarroako Legebiltzarrerako koalizioa osatu eta elkarrekin aurkezteko. NaBai beste era batera osatzeko, EAJrik gabe, pentsa dezake askok. Eta ezetz, hori ezinezkoa dela iritziko dio beste askok, Batzarre eta EAJrik gabe hori ez litzatekeela NaBai. Eta, zalantzarik ez, ez litzateke sorrerako NaBai, baina izan zitekeen beste NaBai bat. Edo beste zerbait, kontua ez baita NaBai bai ala ez, baizik eta ea nola egituratu Nafarroan abertzalea eta aurrerakoia den hauteskaintza indartsu eta zabala.

Eta bide bi izan daitezke horretarako, beti ere ETarik gabeko eszenatokian pentsatuz. Lehenengo eredu Galiziako Bloke Nazionalistarena (BNG) da: esparru ideologiko zabalen abaroan, nafarrei eskaintza abertzale aurrerakoia luzatzea. Saski horretan, Batasunatik EAJra arteko sentsibilitateak bildu litezke, eta aurrera begira PSNren aliantza bilatu —baina baita Nafarroako Ezker Batua eta Batzarre ere—, nafarren gehiengoak eskatzen duen bezala, eskuin nabarrista espainiarzalearen alternatiba egituratzeko.

Bigarren eredu ohikoagoa da, terminologia klasikoa erabilia honakoa: zentro-eskuineko indar abertzaleek osa dezatela eskaintza bat elkarrekin, eta zentro-ezkerrekoek beste bat. Zelanbait esanda, eta brotxa lodia erabiliz, EAJ eta Hamaikabatek osatuko lukete lehena eta Aralar, Batasuna eta EAK bigarrena. Gaurko egoeratik begiratuta, bigarren eskaintza hau litzateke nagusia, eta lehena honen osagarri. Eta eredu honetan ere, aurrekoan bezala, ezinbestekoa litzateke PSN eta beste sektore aurrerazale batzuen aliantza bilatzea, une honetan Nafarroan dagoen behar taktiko premiazkoena bideratzeko, hau da, UPN Gobernutik kanporatzea.



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Baina, eta ezker abertzalearen igandeko eskaintzara itzulirik, ez dirudi orain denik eredu hauen ebazpen uena. Jakina da politikaren munduan ezin dela aterik itxi azken unera arte, baina denak adierazten du datozen udal eta foru hauteskundeetan NaBai-k egungo eskaintzari helduko diola eta ezker abertzaleak bere bidea egin beharko duela, legeztatua edo legez kanpo. Legeztatua bada, bere indarra neurtzeko aukera izango du; legez kanpoko egoeran, NaBairekiko oposizio tin-koa eginez edo, pragmatismoz, bere botoari malgutasuna emanez.

Edozein kasutan, eta beti ere bake prozesua arrakastatsua balitz, aurrera begira egungo NaBairen osaketa da joko kanpo dagoena, ez baitio erantzuten ez abertzaleen batasunari ezta ezker-eskuin ereduari ere. Herritarrok desio dugun eszenatoki malgu eta normalizatu

batean, abertzaleen artean ere ezker-eskuin paradigma —nola izendatu bestela?— litzateke konfrontazio politikorako eredurik naturalena. Hori bai, aldi berean eredu bietatik praktika soberanistarako tarteark partekatuz eta elikatuz. Alde horretatik, orainean baino, ezker abertzaleko proposamenaren potentziala etorkizun hurbilean dagoela dirudi: 2012ko hauteskundeak, 2013koak... hemendik eta ordura arteko harreman esparrua elikatu eta zaintzen jarraitzen bada bederen.

Logikoa da ezker abertzaleak, era batera edo bestera, datozen hauteskundeetan egoteko ahaleginari eustea. Badaki potentzial handia duela. Baina beretzat arriskutsua ere izan daiteke horretan indar gehiegi xahutzea, esperantza horren kudeaketa hauteskundeetako giltza duenaren eskuetan jartzen delako. Oreka gaitza hauteskundeetan ere indar erakusketa egin nahi eta ezin duenarentzat. Baina azken bi urte hauetan, pazientzia eta antolaketa bideak emaitzak eman dizkio ezker abertzaleari. Bide horretan jarraituta, emaitzak bototan islatzea denbora kontua besterik ez da.

Aurrera begira, egungo NaBai-ren osaketa da joko kanpo dagoena

PELLO ZUBIRIA

Pentagonoa prestatzen ari da petroliorik ezarako

Petrolioaren urritzeak ekarriko duen udazken trumoitsoaren bezperan gaudela ez diote gaurgero ekologistek bakarrik: AEBetako militarrek ere barnatu dute *Peak Oil* fenomenoaren epe luzerako estrategian. Militarrek eduki ohi dute informazio estrategikorik aberatsena beti. Atzeraldi ekonomikoa, liskarrak eta gerrak aurreikusten dituzte.

HAU EKOLOGIA ZALE KATASTROFISTA batek idatzia izan zitekeen, baina ez da; irakurri: “Kalkulurik baikorrenak onartuta ere, non petrolio produkzioa hobetu ahalko litzatekeen lurpetik ateratzeko metodoak hobetzearekin, petrolio ez-konbentzionalak (arbel bituminosoak edo harea asfaltodunak, adibidez) garatzearekin, hala eta guztiz ere petrolio produzioak presio handia jasango du etorkizunean (2030ean) 118 milioi upel-eguneko eskaria asetzeko. (...) Baliteke 2012rako petrolio soberakina erabat desagerturik egotea eta 2015ean bertan egunean 10 milioi upelen faltan egotea”.

Pasarte AEBetako armadaren zuzendaritzak —*United States Joint Forces Command*— aurtengo udaberrian plazaratu duen analisitik dago hartua. Ez dago inongo filtrazio edo blog bitxitara jo beharrik, PDF formatoan jaitsi daiteke Internetetik *Joint Operating Environment* agiria. Militarren eskuliburu ofizialekoa da, Sun-Tzu klasiko txinatarraren aipu eta guzti: “Gerrak hil ala biziko garrantzia dauka Estatuarentzako. Bizia eta heriotzaren eskualdea da, bizirautea edo hondamendira daraman bidea. Derrigorrezkoa da sakonki aztertea”.

Militarrek petrolioaren urritzeaz gain etorkizuneko gai estrategikoak banan bana landu dituzte: demogra-

fia, ekonomia, elikadura, ura, pandemiak, hondamendi naturalak eta abar. Energiari dagokionean, erregai nagusia den petrolioari zehazki, gero eta urriagoa izango den garaian zaindu beharko diren alorrak aztertu dituzte. Aurreikusi, esaterako, hare asfaltodunetatik petrolio ateratzeko behar den ur kopuru izugarriek nekazaritzan eta ingurumenean sortuko dituzten eraginak.

Garrantzia berezia damaiote militar yankiek OPEP petrolio produktoreen elkarteak egin dezakeenari. Ez dute ezkututzen OPEPeko estatuei interesatuko zaiela petrolio produkzioa mugatu eta prezioak garesti mantentzea, eta disimulu gutxirekin argitzen dute herrialde kontsumitzaile aberatsek gaur “gune ezegonkorra” dena bihurtu dezaketela beren erasoekin “gune kaotiko”. Irakurle fidagaitzak galde lezake horrelakoak iradokiz ea AEBetako armada mehatxuak egiten ari den, ala inplizitoki aitortzen ote duen hain juxtu horixe egin dutela Iraken, petrolio kontrolatzeko kaosa sortu.

Tirabira militar horiek gertatuko direnez, militar yankiak kezkatzen dituzte txiki izanik ere energiaz aberats diren etsaiek. Petrolioaren ekoizleek teknologia aurreratuazko armak erraz pilatu ditzakete. Bestalde, zera dio hitzez hitz: “OPEPen irabazien zati bat iritsi liteke terrorismoaren

Argazki handia Wikimediak eskaintzen du orain artean Mendebaldeak ezagutu duen petrolio txokerik handiena iruditzatzeko; 1979an dago aterata, AEBetako gasolindegibatean, eta bertan ikus daitezke autoak pilatuta, herrialde arabiarrek iturria itxitaikoan urritu zen erregaiaren egarri. Orduko astindua handia izan zen arren, askoz gogoragoa izango da datozen hamar-hamabost urteetan nozitu behar duguna, *Peak Oil* berresten baldin bada. Dagoeneko petrolioaren urritzea ez da eztabaidagai, noiz eta nola gertatuko den dago erabakitzeke. Robert L. Hirsch —irudi txikian— adituaren ustetan petrolio produkzioak goia 2004an jo zuen eta berehala hasiko da jaisten. Lehen hamar urteetan mundu osoan Barne Produktu Gordina %20-30 apalduko omen da, XX. mendean gorpuztu den zibilizazioarentzako lurrikara izugarria. Energia eskuratzeko lehia eta gerrak ugarituko dira.

sakeletaraino edo helburu sakonki antimodernoak eta antimendebalderak dauzkaten mugimenduen eskue-taraino”. AEBen eraso gainera etor dakion, batek aski izango ote du modernitatearen edo mendebaldearen kontrakoa izatea?

Herritarrei esatera nor ausartu?

Geostrategiazko gorabehera garrantzizkoen landa, deigarria da nola bereganatu duten militar iparramerikarrek *Peak Oil* ideia. Segurutzat dakusate datozen 30 urteetan handitzen segituko dutela petrolio eskariak eta hori eskuratzeko lehiak. Baina ez itxaron petrolio urritu arte: “Merkatuak konplikaturik dago petrolio agortu baino askoz lehenagotik”.

Gero eta dokumentazio ugariagoa plazaratzen da Amerikako Estatu Batuetan ildo beretik. Udazken honetan Center for a New American Security erakundeak honako informea argitaratu du: *Fueling the Future Force. Preparing the Department of Defense for a Post-Petroleum Era*. Alegia, nola preparatu AEBetako armada petrolio gutxiko garaietarako... ahaztu gabe militarrek berak direla kontsumitzaile itzelak.

Horrek guztiak oihartzun berezia lortu du European berriketan Parisko *Le Monde* egunkariaren blogen artean *Oil Man, chroniques du début de la fin du pétrole* egiten duen Matthieu Auzan-



neau kazetariak Robert Hirsch elkarizketatu duenean. Hona bi zatien tituluak: “Peak Oil, Jimmy Carterren Energia ministroak alarma deia piztu du” eta “Robert Hirschek dio Washingtonen egia isiltzeko konspirazio bat dagoela”.

Lerroburuak aipatu Energia ministro ohia James Schlesinger da eta hitzaurrea egin dio Hirschek publikatu duen liburu berriari: *The Impending World Energy Mess*, alegia, Munduari gainera datorkion energiazko amesgaiztoa. Ez dira edozein, bata bezala bestea. Schlesinger Defentsa ministro izan zen bai Richard Nixonekin eta bai Gerald Fordekin, eta Carterrekin Energia-koa. Robert L. Hirsch, berriz, Exxon multinazionalen petrolio bilaketen

buru izan zen, armadaren estrategia markatzen txit eraginkorra den Rand Corporation-eko kide eta fusiozko energia lortzeko Gobernuak sortutako batzordearen arduradun.

Hirschek 2005ean publikatu zuen administrazioaren eskariz idatzitako ikerlan bat non petrolioaren urritzea deskribatzen zuen, zenbaiten iritziz AEBetako administrazio batek hone-taz sekula egin duen aurreikuspenik ezkorrena. Han bukatu ziren Hirschentzako enkarguak; ordainetan, orduantxe lortu zuen erreferentzia-zako gizona bihurtzea munduan.

Hirschek Matthieu Auzanneauri esanak frantsesez bezala gaztelaniaz erraz eskura daitezke Internetez. Gordin ari da aurrikuspenetan.

Hasteko, Hirschen aburuz petro-

lio produkzioak goia jo du dagoene-koz, 2004tik ordoki antzeko batean gaude, eskariaren tentsioa krisi glo-balarekin arindu da bolada labur batez baina berriro gogortu da eta bi edo bost urte barru hasiko omen da produkzioaren gainbehera. Zein abiadan? Hor dago gakoa.

Urtetik urtera %2 gutxiago ekoiz-ten bada, sekulako astindua nozituko du munduak, baina %4 gutxiago iza-nez gero hondamendia gerta liteke. Entzun hau: mundu osoaren Barne Produktu Gordina %20-%30 jaitsiko da beherakada hasi ondorengo hamar urteetan. Katastrofe hori ezingo da irentsi gerrarik gabe.

Erreakzionatzeko tarterik apenas ikusten duen Hirschek. Hain da han-dia munduaren petrolioarekiko men-pekotasuna, ezen eta hain epe labu-rrean ez duen lortuko ordezkorik antolatzea. Eolikoak, eguzkiarenak eta biomasak ez dute aski emango. Bai Hirsch eta bai Schlesinger non-dik datozen jakinik, fusioan dauden itxaropenez landa, batetik nuklea-rrean ariko dira pentsatzen, eta bes-tetik, munduan geratzen den energia, indar militarrez etxera ekartzen.


Administrazio-ko funtzionarioekin eta politikariekin ez du itxaropenik Hirschek, eten gabe ari omen dira konspiratzen *pastela* ezkutuan atxiki-tzeko, herritarrei iresten zail egingo zaielakoan. Aldiz, Pentagonoko mili-tarrak askoz prestatuagoak ikusten ditu. Adibidez, 2005ean petrolio krisi handi baten inguruko ariketa milita-rrak egin omen zituzten.

“Kalte handiez ari gara, gure zibi-lizazioaren aldaketa erraldoi batez: kaosa, hondamendi ekonomikoa, gerrak...” aipatuz amaitu du. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Anuntxi Arana

Urradurak

H

izkuntzaren altxorra dira euskalkiak eta kutxa amankomuna koloratzen dute gustukoen dugun hitza aukeratzeko parada ematen digutenean. Ahoskeran, ordea, badira

batasuna nahasten duten bi kontsonante, ‘j’ espainola Hegoaldean eta ‘rr’ frantsesa Iparraldean. Belarea eta ubularea deitzen diete, hurrenez hurren, fonetikariak, eta hots latzak dira biak, eztarrikoak. Elkarren hurbil dira fonetikoki eta, politikoki, mugaz bi aldean zatiketaren sinbolo sime-triko begitantzen zaizkit.

Hain dira hedatuak soinu bizki horiek ez garela ia haietaz ohartzen, batez ere xaharren ahots umoez esanak badira. Gordinago ageri dira belaunaldi berriek ateratzen dituztenean, bereziki bertsuetan aritzen direnean: gazte eta lorios dira, sendo daude eta indarrez tinkatzen dute hauspoa. Haien zintzurrean urradura bat edo igartzen dute entzuleek –batzuek segurki– eta beren belarrian sufritzen.

Nahiko berriki sartu dira euskaraz ‘j’ belarea eta ‘rr’ ubularea. Lehenaz Larramendik idatzi zuen ez zela euskararena, kutsatua baizik (pegadiza), eta XVIII. mendearen erdian Hegoaldeko leku gutxitan ezagutzen zutela. Geroztik arrakasta izugarria izan du eta gaur egun arras barneratua dute euskaldun anitzek. Behin, aspalditxotan, mendebaldeko bizkaitar batek etengabe erabiltzen zuela konturatuta, zergatik egiten zuen galdetzeraz ausartu nintzen; erantzun zuen bere sortetxean ez bezala, berak, alfabetatu eta euskalgintza ofizialean sartzearekin batera, forma “batua” onartu zuela, erdarazko ‘j’, alegia. Handik laster, Euskaltzaindiak ‘j’ sabaikaria [y] hobetsi eta aholkatu zuen, eta orduan bizkaitarraz gogoratu nintzen, itzuliko zela etxeko ohi-turara, akademiaren prestigioa zuenez geroz. Baita zera ere: aurtan berriz entzuteko parada izan dut eta lehen letxe segitzen du, delako batuari men eginda. Nafar zenbaitek bezala.

Ipar Euskadin askoz geroago sartu da ‘rr’ frantsesa, Frantzia ere ez baita zaharra. Euskaltzaindiak gaitzetsi du eta barnealdeko adineko jende anitzek ez dute behin ere bereganatu, hasteko Bardozen, Urdiñar-



GAIZKA IROZ

ben, Izuran, Bidarrain... Horretaz oso azalpen polita ematen du Erramun Baxok soziolinguistak: haren eskualdean, Suhuskunen, denek euskal ‘rr’a’ ahoskatzen zutela eta frantses moduar egiteari “grekatzea” deitzen ziotela (“totel” zentzua ere badu, bestalde, “greka” horrek). Mintzatzeko molde berezizat zeukaten, urrean, baina orain Iparralde osoa hartua du Pariseko modak eta bestela egitea hegoaldekeriaren marka da, omen, hainbestearaino non Hegoaldeko gurasoen haur batzuek etxean sekula aditu ez duten soinua hautatu baitute, hobeki iparraldetu nahiz, beren hemengotasuna erakusteko. Berdin egiten dute guraso horietarik zenbaitek, eta birtuosoe-nak hitz berean ‘j’ belarea eta ‘rr’ ubularea elkartzen ere dituzte; haien “jarri”, “jorra”,



Orain Iparralde osoa hartua du Pariseko modak eta bestela egitea hegoaldekeriaren marka da, omen, hainbestearaino non Hegoaldeko gurasoen haur batzuek etxean sekula aditu ez duten soinua hautatu baitute, hobeki iparraldetu nahiz, beren hemengotasuna erakusteko




“jarrai” eta antzekoak entzutea gogoangarria da, benetan.

Ezinbestean grekatzen dutenak badira –idazle, bertsolari, politikari ospetsuak–, edo beste manieraz ikasteko aukerarik izan ez dutenak. Ez da hor arazoa, bistan da, baizik eta holakoak goraiapatzea eta lehenestea.

Garrantzizkoa da euskararen ahoskeraren historia ezagutzea, batik bat gazteek ikas dezaten nolakoa zen Larramendiren garaian, “gehienbat goxoa eta zakartasunik gabea”, eta nolakoak izan diren oraintsu arte ‘j’ eta ‘rr’a’; horren argitara hauta dezaketentzat gero edo, bederen, ez ditzaten lagunengan erdeina batasun alderantz doazen jarduerak. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Txuri-Urdin izotz jauregia

2 harpidedunentzat
launa sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

3



Urko Menaia

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2251. Argia)

ATXASPI

• Gurutze Aiarzagüena Aranzibia (Zaldibar)

TXURI URDIN

• Aitor Duñabeitia Martin (Durango)
• Miren Olabarria Arana (Bergara)

BILBO SAMURAI

• Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
• Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
• Fernando Elorza Etxaspe (Aretxabaleta)

PELLO MARI OTAÑO

• Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
• Fray Juan de Zumarraga Institutoa (Durango)
• Gabino Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
• Gregorio Elortza Izeta (Beasain)
• Iñaki Blain Salaberria (Donostia)

KIROLAZ BADAKIT

• Luis Mari Telleria Lezeta (Segura)
• Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

ASISKO

MATTIN IRIGOIEN

ADUR

OKATXU

hegal egiten



Okatxu arkumea jaio da Ipar Euskal Herriko arditegi batean. Ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiole amerikar euskalduna, mendizale bizkaitarrak... Mundua ezagutzen joango da pixkana-pixkana.

Elkarriketa bizi eta jostariak, hizkuntzaren aniztasuna lanabes: Xuka, Toka eta Noka, euskalki arteko jolasak, artzain-eleteria, erran zahar eta berri... Eta hori guzia abentura dinamiko eta irringarrian zehar.



KAMISETA + LIBURUA

22€


Argia

 ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com